

ETako preso ohiak **Askatasunera** **egokitze**ko ahaleaginean

- **Lucia Goñi** Laurogei urte bizitzari hortzak erakusten
- **Ekintzailatza garatzeko programak** 2013an 59 enpresa sortu dituzte EAEn
- **Hamlet** Mende berri honen erronken aurrean
- **Net Hurbil** Kuban, tramankuluak konpontzen hasi eta berriak asmatzen bukatu
- **Heriotza** Ezkutatu nahiak babes gabe uzten ditu haurrak

elhuyar HIZTEGIEN ARO BERRIA

- ELHUYAR HIZTEGIA
- ELHUYAR HIZTEGI TXIKIA
- ELHUYAR OINARRIZKO HIZTEGIA

Euskara/Gaztelania
Castellano/Vasco

Elhuyar hiztegien 4. edizioa eta hiztegiak.elhuyar.org webgune berria.
BERRITZAILEA, IREKIA, GUZTIONA.



elhuyar hiztegien edizio berria

4.000 sarrera gehiago, 91.000 guztira. Euskararen eta gaztelaniaren lexikoan izan diren azken berrikuntzekin. Espezialitate-arloetako lexiko berriak.

→ www.elhuyar.org/denda WEBGUNEAN EROSI

hiztegiak.elhuyar.org

Bilaketa-aukera berriak. Hitzen ahoskera entzuteko aukera. Hiztegien etengabeko eguneraketa.

→ Elhuyar hiztegi elebidun guztiak, DOAN KLIK BATEAN

elhuyar hiztegia kindle-n

Bi hiztegi ditugu zure irakurgailurako: batetik, euskara-gaztelania; bestetik, gaztelania-euskara. Honako irakuragailuetan instala dezakezu: Kindle Paperwhite, Kindle Classic, Kindle Touch eta Kindle DX.

→ www.elhuyar.org/hiztegiak-kindle



* Elhuyar Hiztegia eta Elhuyar Hiztegi Txikia erosten dutenek sarbidea izango dute hiztegiak.elhuyar.org webguneako gune aurreratura

elhuyar



Azaleko argazkia:
DANI BLANCO
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Sorraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetza: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAIA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko azaroaren 3a, 2.389. zenbakia

ASTEKO GAIA

EKINTZAILTZA Ausardia kontua. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 4

PERTSONAIA

LUCIA GOÑI OLIAS: «Zuek ez duzue ezagutu krisia!». REYES ILINTXETA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Euskal ondarearen erakusleku. MARTIN VICIOSO / 15

HERIOTZA Umeekin tabua nola gainditu. UNAI BREA / 16

IRITZIAREN LEIHOA

HASERRETZEKO ESKUBIDEA JUNE FERNÁNDEZ / 20

ALTERNATIBA IÑAKI BARCENA / 22

NOREKIN HITZ EGINGO DUT EUSKARAZ? (OSAKIDETZAKO LANGILE BATEN GALDERA) ONINTZA IRURETA AZKUNE / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Erreduktionismoa. EDU ZELAIETA / 22

BERTSO BERRIAK Trebiñori begira. OIHANE PEREA / 23

ERDIKO KAIERA

ANTZERKIA XXI. mendeko euskaldunen larrua du Hamletek. MYRIAM GARZIA / 24

LITERATURA ARITZ GALARRAGA / 28

MUSIKA JOXI UBEDA / 29

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 30

ALEA Inkomunikazioa baliatu eta komunikazioa sortu. AINHOA MARIEZKURRENA / 31

IHESI AGURAIN (ARABA) Harrizko herri hau. NAROA SASIETA / 32

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

ETA-KO PRESO OHIEN BIRGIZARTERATZEA Espetxealdiaren osteko bizitza. IRATI SARASUA ARABAOLAZA / 39

JURGEN M. MEISEL: «Hizkuntza bat baino gehiago ikasteko eginak gaude genetikoki». MIEL A. ELUSTONDO / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Kubatarrak maisu behar gorriaren teknologietan. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Ausardia kontua

“Porrot egitea esperientziaren isla da AEBetan. Erortzen badira altxatu eta aurrera egiten dute, baina Euskal Herrian beldurra diogu porrotari. Altxatu eta atzera begiratzen dugu lehenengo, norbaitek ikusi ote gaituen jakiteko. Arriskatzeko beldurra ematen digu, eroriz gero esango dutenagatik”. Hala mintzatu zaigu Nagore Urreta 23 urteko gazte ekintzailea.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

GERMAN URRETAk bizitza osoa pasatu du arriskatzeko. 87 urte ditu eta garai hartako beharrei erantzunez izan du beti ekintzaile jarrera, ez da inoiz zain egon, ikusi dituen aukera guztiekin egin du saiakera. Urte haiekin alderatuta, beharrak asko aldatu badira ere, helburua bera da gaur egungo gazte askorentzat: zain ez egotea eta ausardiaz jokatzeko. Aldaketa nabarmena dago bi garaiei artean: gaur egun hurrek ikastetxetan lantzen dute ekintzailertza. Belaunaldi ezberdinek nabarmendu digutenez, izaera kontua da, eta ausarta izaten eta helburuak betetzeko saiakerak egiten ikasi egiten da.

Hala, Andoaingo Aita Larra-mendi Ikastolan, adibidez, hainbat programaren bitartez lantzen dute ekintzailertza. “Betiere ikasleak motibatzea eta parte hartzea bilatzen dugu, ikasleei zer egin behar duten esan ordez testuingurua ematea. Testuinguru horren barnean beraiek pausoak eman ditzaten, erabaki dezaten”, adierazi du Gorka Matute irakasleak. June Minerrek 11 urte ditu, eta ikas-kideekin batera gelatik kanpo ekintzak eginez ere ikasten duela adierazi du: “Ibaiko ura aztertzerako joaten gara, zuhaitzak landatu eta ondoren nola handitzen diren ikustera, eta bigarren eskuko azokan ere parte hartzen dugu, behar ez ditugun gauzak saltzen ditugu han”. 6 urte zituenetik egiten ditu halakoak eta, horregatik, ohituta dago. Haur txikiek gauza txikiak egitea eskatzen diete. Marrazkiak egiten ari direnean edo abesten ari direnean, hots, sormena lantzen ari direnean, lantzen dute ekintzailertza. Gidatuta egiten dute,

baina modu irekian. “Goazen paisaia bat marraztera” esaten diete. “Zer egin behar duten ez diegu esaten. Eguzkia eta belarra egin behar dituztela ez diegu esaten, hartara bakoitzak bere irudia marrazten du eta aurrera ateratzen du”, zehaztu du Matutek.

Horrez gain, herrian haurren iritziak garrantzia izatea ere sustatzen du ikastolak. Bi haur, gainerakoen izenean, Udaleko ordezkariarekin biltzen dira urtero, eta urtean zehar gertatutakoaren arabera konpromiso batzuk hartzen dituzte. Herria hobetzeko aldaketak ere proposatzen dituzte. Azken batean, Udala beraiekin elkar-tzeak balioa ematen die egindako proposamenei.

Ikastola berean ikasten du Alejandro Ugaldek ere. 16 urte ditu. Iaz Parisen egon zen gelakideekin, eta ez zen nolanahiko bidaia izan, aurretik Frantziako gertakariak landu zituen ikastolan, eta gero han bertatik bertara garatu zuten ikasitakoa. “Ezberdina da han ikustea edo liburuan irakurtzea. Ikusita gehiago ikasten dela pentsatzen

dit, oroitzapen mardulagoak dira”. Ikastolan lantzen dituzten proiektuek ekintzaile izaten laguntzen diotela nabarmendu du: “Mugiarazten laguntzen du, Kosmodisea lehiaketak esaterako hori lortzen du. Ez zara zain egoten, zuk bilatzen dituzu gauzak”. Ekintzailertza sustatzea helburu duen Kosmodisea lehiaketan, proiektu bat pentsatu eta aurrera eramane behar dute gazteek. “Iaz bideo bat egin genuen eta horretarako jendea elkarriketatu. Askotan halakoak egiteko gai ez garelako pentsatzen dugu, baina bagara, dena jarrera kontua da, eta baliabide kontua, jakina”.

Urrats bat programari esker, dagoeneko 376 enpresa sortu dituzte ikasleek. “Gazteek ekarpen bat egiten diote gizarteari, eta hori oso positiboa da”, nabarmendu du Ramon Martinez de Murgia Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak



Mondragon Unibertsitateko ikasketen baitan Ta zeba ez? enpresa sortu zuten bederatzik ikasleek, elkarlanean. Kooperatibak izaera ofiziala lortu berri du, lau urteko lanaren ostean.

Elkarri laguntzeari berebiziko garrantzia ematen diote ikastetxean. “Txikitatik bultzatzen dugu elkarri lagundu behar diotela, iniziatiba izan behar dutela eta pentsatzen dituzten proiektu horiek aurrera eramateko gai direla, ez dagoela trabarik. Haien esku dagoela”. Halako programek ideiak sortzen dituztela nabarmendu du Matutek: “Motibazioa handitzen da halako egitasmoekin eta parte-hartzea ere hobea izaten da. Klaseko jardueran arruntetan gehiago kostatzen zaie, aspergarriagoa egi-

ten zaie. Halako proiektuetan, aldiz, irudimena eta esku-hartzea bultzatzen da”. Gainera, ikas-tolak halako ekintzak baliatzen ditu natura zaintzearen aldeko kontzientzia sustatzeko. Ekosistemari lotutako gaiak lantzen dituzte; hondakinen kudeaketa, besteak beste.

Etxean transmititu daitekeen zerbait da ekintzailletza eta horregatik, gurasoen inplikazioa bilatzen du ikas-komunitateak. Aitak eta amak egiten badute, errazagoa izango da seme-alabek ere egitea.



**TALLERES
MITXELENA** S.COOP.



Torno bertikala: Ø 4.200 x 2.000
Fresadora: 10.000 x 3.500
Barrenatze mekanizatua

Talleres Mitxelena, S.Coop.

Eziago Poligonoa • Zikuñaga Auzoa • 20120 HERNANI (Gipuzkoa)
T 943 55 25 12 - 16 • F 943 55 28 16 • info@talleresmitxelena.com

www.talleresmitxelena.com

EKINTZAILETZA

IRATI SARASUA



Ezkerreko irudian, hiru belaunaldi ekintzaile: German, Esteban eta Nagore Urreta. Elkarrengandik jaso dute erronkei heltzeko ilusioa. Eskuineko argazkietan, Andoaingo Aita Larramendi ikastolan DBHko eta Lehenengo Hezkuntzako ikasleak, ekintzailletza lantzen.

Batxilergoa egin ostean ere, ekintzaile

Lanbide Heziketan eta unibertsitatean nahi adina aukera daude ekintzailletza lantzeko. Lanbide Heziketan, duela hamar urte hasi ziren, batez ere, ekintzailletza sustatzen, bi helburu garbirekin: ikasleek ekintzaile jarrera barneratzea eta enpresak sortzea. Lehenengo helburua betetzeko, Ikasenpresa programa jarri zuten martxan: eskola orduetan enpresa txiki bat eratzean datza. Ikasleek, euren artean harremanetan jarri, eginkizunak banatu, sortutako produktua komertzializatu eta merkaturatu behar izaten dute. “Enpresa bat martxan jartzeko zer egin behar den lantzen dute eta ekintzailetasun gaitasunak garatzen dituzte”, adierazi du Ramon Martinez de Murgia Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako zuzendariak. Azken urteotan 6.000 ikaslek parte hartu dute programa horretan. “Ekintzaile izateko ohiturak ez ditugu oso barneratuak eta horretarako egiten dugu”, gaineratu du.

Hortik aurrera nahi dutenei benetako enpresa bat sortzeko aukera ematen diete Urrats bat egitasmoaren bitartez. Egitasmo horri esker, hainbat enpresa sortu dituzte, txikiak normalean. Hastapenetan, irakasleen laguntza izaten dute eta lehenengo urtean ikasketxeak leku bat uzten die egoitza bat izan

“Kosmodisea lehiaketan, proiektu bat pentsatu eta aurrera atera behar dugu. Askotan uste dugu ez garela gai halakoak egiteko, baina bagara, dena jarrera kontua da, eta baliabide kontua, jakina”

Alejandro Ugalde, 16 urte

dezaten. “Oso emaitza onak ematen ari da programa eta ikasleak gustura daude. Orain arte 376 enpresa sortu dituzte, eta horien %76a matendu egin da”, azaldu du Martinez de Murgiak. Enpresen %70a zerbitzu arloko enpresak dira eta gainerako ia %30a industria eremukoak.

2013an 59 enpresa abiatu dituzte. “Egoera ekonomikoa kaskarra da, eta sortutako enpresa kopurua oso ona. Gure asmoa honekin jarraitzea da, eta ahal bada gehiago sortzea. Martxan dagoen proiektu batekin ateratzen dira gazteak eskolatik, eta ez dute inoren menpe egon behar. Egoera ekonomikoa dagoen bezala, irtenbide ona da. Gazteek gizartearekiko hartzen duten konpromisoa ere nabarmendu nahiko nuke, gizarteari ekarpen bat egiten diote eta hori oso positiboa da, beraientzat eta guztiontzat”.

Unibertsitateak ere ematen du ekintzailletza lantzeko aukera. Markel Gilbertek 23 urte ditu eta ikaskideekin sortu duen kooperatibak izatera ofiziala lortu berri du. Ta zeba ez? enpresa bederatzi ikasleren artean sortutako ekimena da. Gilberten ikasketak ere ekintzailletzara erabat bideratuta egon dira, argi zuen ohiko ikasketetatik aparteko zerbaitei nahiago zuela, eta hala, artikulua batean irakurri zuenean Finlandiako metodologian oinarrituriko ikasketak



DANI BLANCO



DANI BLANCO


jarriko zituztela martxan Mondragon Unibertsitatean, ez zuen bitan pentsatu. “Kontatzen zuten ohiko ikasketetan lantzen ez ziren gauzak landuko zirela, oso praktikoa zela”, eta izena eman zuen.

“Lehenengo egunetik enpresa bat sortzen duzu talde batekin eta zuk kudeatzen duzu. Enpresak zehaztutako helburuak betetzen badituzu ikasketak gaintzen dituzu. Ikasketa erabat praktikoa da, kaosa”. Sartzeko, ez da eskatzen batez besteko notarik, casting bat egiten dute eta “bestelako jarrera duen jendea bilatzen dute, test baten arabera egiten dituzte taldeak, eta talde horren bidez enpresa sortzen dugu. Egia da hasieran harritu egiten zaituela, ez gaude ohituta”, aitortu du Gilbertek.

Uztailean amaitu zituen ikasketak. “Gure asmoa gure enpresarekin jarraitzea izan da beti”. Unibertsitatean eratu zuten enpresa hori, eta lau urte hauen ostean, kooperatiba izaera ofiziala lortzea pauso naturala izan da. “Gauza oso ezberdinak egin ditugu, baina gurea den zerbait sortu nahi genuen”. Estrategikoki lan handia egin dutela azpimarratu du: zer egin nahi zuten zehaztu dute, azken batean. Bederratzien asmoa hezkuntzan lan egitea da, Finlandiako meto-

dologia ezagutaraztea, eta horrez gain, enpresek lan egiten ari dira, enpresen berrikuntza prozesuetan. “Azkenean merkatuak esaten dizu guztia, berak bideratzen zaitu. Beraz, aurrerago ikusiko dugu orain zehaztutakoa betetzen dugun ala ez”.

donostiakultura.com



Disenhu: www.tga.cc

HAMLET
ARTEDRAMA,
LE PETIT THÉÂTRE
DE PAIN, DEJABU
Gazteszena (Egia)
Azaroa **07-10** Noviembre
20:00
● euskara



CENDRILLON
MALANDAIN
BALLET BIARRITZ
Victoria Eugenia
Azaroa **19-20** Noviembre
20:00



RUPER ORDORIKA
Victoria Eugenia
Azaroa **24** Noviembre
20:00
● euskara



SARRERAK
Leihatilak
www.kutxasarrerak.net
BAZKIDEAK % -10





Eskola-orduetan enpresa txiki bat eratzea xede duen Ikasenpresa egitasmoan 6.000 gaztek hartu du parte azken urteotan. Argazkian, Usurbilgo Lanbide Heziketako ikaslea.

Honekin guztiarekin zer ikasi duen? “Iniziatiba izateko eta arriskatzeko gogoia”. Beste ikasketa batzuetan lantzen dituzten gai asko jorratzeke ditu oraindik, “baina erabakitzeke adorea badut eta helburuak markatu eta ikasten jarraitu dezaket. Edukiak baino gehiago, jarrera bat eman didate ikasketek, eta hori baliagarriagoa da”, ziurtatu du Gilbertek.

Hiru belaunaldi, ikuspegi bera

Nagore Urretak ere 23 urte beteko ditu laster, ekintzailtzari lotutako masterra amaitu berria du, baina ez da unibertsitatean ikasitakotik soilik datorkion grina: “Madrilen aritu naiz ikasten, eta ekintzailea zer den azaltzen zuten bakoitzean aita eta aitona etortzen zitzaizkidan burura. Ordura arte jabetu gabea nintzen, horrekin hazi naizelako, baina pentsatzen jarriko izugarria da egin dutena, ez diote

“Lehen Hezkuntzan, ikasleak motibatzea eta parte hartzea bilatzen dugu, zer egin behar duten esan ordeztuingurua ematea, testuinguru horren barruan pausoak eman ditzaten, erabaki dezaten”

Gorka Matute, irakaslea

ezeri beldurrik izan eta hori iruditzen zait garrantzitsuenak”. Hemendik aurrera zer egin pentsatzen ari da Urreta. Baserri batean bizi da eta hori baliatu nahi du etorkizunerako, ez du proiektu definiturik oraingoz, baina ideia badu: ezinduentzako gunea sortzea, eta animaliekin ere izango luke lotura ekimenak.

Nagoreren aita Esteban da. Bizitza osoa darama batetik bestera, eta berak ere jokamolde hori etxean ikasi duela dio. “7 urterekin oporrak genituenean lagunak jolasten egoten ziren eta ni aitarekin lanean aritzen nintzen, txikitatik izan dut ikasteko eta erronkei helatzeko ilusioa”. Orain, alabak masterraren amaierako proiektuan landutako ideia martxan jartzea gustatuko litzaioke. Barkuak norberak konpontzeko gunea sortu nahi dute aita-alabak, autoen sektorean egiten den bezala. Aukerak badaudela uste dute, eta senideen arteko bazkari eta afarietan proiektuaz hitz egitean bideragarria dela argiago ikusi dute. Horrez gain, dagoeneko produktu bat patentatu du Estebanek, beste hainbat hobetu ditu, eta gehiago ere baditu buruan.

Azken finean, Nagoreren eta Estebanen izaeran Germanek eragin handia izan du. Ezintasun batekin jaio zen, oinak barrurantz zituen. Ebakuntzari esker berriro oinez ibiltzea lortu zuen eta horrek edozer gauzari aurre egiteko indarra eman zion, baita ausardia ere. Orkestra bat sortu du, botoi fabrika bat izan du, produktuak asmatu ditu, behar zituen makinak egin ditu, eginda zeudenak ikusi eta hobetu ditu, jendeari galdetu eta probak eginda, besteen proiektuak bere helburuetara egokitzeko gaitasuna izan du... Ez da inoiz geldirik egon. Garai bateko gosearekin lotzen du geldirik ez egote hori, baita pasioarekin ere, desio duzun proiektua gauzatzeko gogoarekin. “Gaztetxoa nintzela, 13 urte ingururekin, trenbidera joaten ginen dinamitarekin errailak apurtzera, gero piezak hartu, saldu eta etxera dirua eramateko”.

Baserria erostean ere, aukera bat ikusi zuten, eta landetxea egitea erabaki zuten. “Esperientzia izugarria izan zen”, nabarmendu dute guztiek. Txikitatik etxeko haurrek ere lagundu dute etxean, eta ohitura horri helduta aita eta aitona bidea jarraitu nahiko luke Nagorek. Gazteenari miresmenegiz begiratzen diote helduenek, etorkizunari eta bidean akatsak egiteari beldurrik ez diolako, etorkizunari ausardiaz begiratzeko diolako. ■



BASQUE COUNTRY

Mundura zabaltzen, haziko gara.

PERTSONA, HELBURU

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO



LUCIA GOÑI OLIAS

«Zuek ez duzue ezagutu krisia!»

“Hamalau ofizio, hamabost mixeri”. Hori esaten zen lehen. Orain aldiz, negozio berriak abiarazteko gai diren ekintzaileen kemena goraipatzen da toki guztietan. Halakoa dugu Lucia Goñi basaburutarra: zerbitzari, sukaldari, saltzaile, sukaldaritza irakasle, jostun eta, erretreta hartuz geroztik, bertsolari, idazle eta margolaria. Negoziante ona, alaia eta zinbaratu hutsa emakume hau.

| REYES ILINTXETA |

Argazkiak: Dani Blanco

Aizarotzen sortua zara.

Orduan Aizarotz herri txikia zen. Bost familia bizi ginen han, besterik ez. Aitak esaten zuen hori betidanik jaurerria izan zela. Ez dakit zergatik, Errepublikaren denboran, 1932an, bidali gintuzten handik. Bi urteko epea eman ziguten alde egiteko. Ene aita arotza zen, perratzaile lanak eta lurra lantzeko tresnak konpontzen zituen eta sasi-albaitari ere ibiltzen zen. Nik suteagian laguntzen nion. Bi bizitzako etxe batean bizi ginen eta hor zeukan sutegia. Errota ederra eta herriko etxea ere baziren. Baina orain dena hondatu dute. Apartamentuak egin dituzte han eta herri guztia etxez bete dute, kanpoko jendea etorri da bizitzera. Orain negargura ematen dit. Han nire denboran bazen presa handi bat eta zentral elektrikoa zuen herriak. Arrarats eta Igoako erreka txikia etortzen da handik, Artius izena duena. Zenbat amuarrain harripatu izan ditudan nik hor eskuekin eta sarearekin eta denarekin! Orain laku bat egin dute han.

Aizarotzetik Gartzaronera joan zineten.

Aitari ez zitzaion komeni oso urrutira joatea, bezeroak ez galtzeko. Gartzaron herrian erosi zuen lurra eta ahal bezala egin zuen etxea. Hiru senide ginen orduan, ni zaharrena. Gero han beste lau gehiago sortu ziren. Oso etxe ederra egin zuen aitak, hantxe jaso zuen burua. Familia osoa han ginen eta bezeroak inguruko herrietatik etortzen zitzaizkion. Baina 1936an gerra hasi zen. Kristoren inbidia zioten batzuek aitari. Ceutan egon

zen soldadu eta handik irrati emisore txiki bat ekarri zuen. Ofizial baten asistente egon zen eta hark oparitu zion. Gure aitak ez zekien politikaz ezer ere ez, baina Beramendiko apaizak, gizon gaiztoa, kendu nahi zion irratiatai eta parte eman zion Guardia Zibilarri. Leporatzen zioten irratiatai jarri izana “*en ondas rojas*”. Hori ez zen egia. Irratia hantxe zegoen, etxeko txoko batean gordeta. Aita atxilotzera etorri ziren. Ama eta hiru umeak aterarazi gintuzten etxetik aita despeditzeko. Amak esan zien ez zegoela etxean, Orokiatarra behi bat ikustera joana zela. Aita etorri zenean Lekunberriko kaboak esan zion familiari agur

NORTASUN AGIRIA

Lucia Goñi Olias. Nafarroa Garaiko Basaburuako Aizarotz herrian sortua, 1928ko Luzia Deunaren egunean (abenduren 13an). Domingo Goñi Juanbeltz eta Valentina Olias, Ihabengo bentako alabaren alaba nagusia. Zazpi senidetan zaharrena. 14 urterekin etxetik atera zen lanera. Ordutik ez da gelditu. Hamaika (hamar gehi bat) bizileku desberdin izan ditu Nafarroa eta Gipuzkoan, eta lanbide ere ugari. “Nire lehen bertsoa izan zen: *Hamalau ofizio, hamabost mixeri* / hori gertatzen baitzaio beti Goñiri: / Lehenengo arrantzale, gero sukaldari / zahartu eta ondorean bertsolari. / Udan taloa egiten nabil ferietan, / eskulangintza dela eta erakusketan. / Frantzian izan nintzen, Garrüzeko festetan, / hantxe bai saldu nuela taloa benetan. / Zazpi senide gara, baita ere bi alaba baditut ondoan. / Sei bilobatxo eder nire inguruan, / baina senarra aspalditik dut beste munduan”.





esateko, ez baitzekien berriz itzuliko ote zen. Agian handik bi kilometrora dagoen Jauntsarasko zuhaiztian bere zain egonen zirela fusi-latzeko. Kristoren tristura. Denak negarrez. Aita ez zen tuntuna, erdaraz apenas zekien, baina tuntuna ez zen eta esan zien berak herriko apaizarekin hitz egin nahi zuela eta mesedez itxoiteko bera itzuli arte. Don Martin apaiza zaharra zen eta oso jakintsua. Karlisen garaitik ez dakit zer amistade zituen edo, kontua da apaizarekin etorri eta honek eskatu zien mesedez itxoiteko, telefonoz hitz egitera joan behar zuela eta. Ilarregin zegoen telefonoa, lau kilometrora, eta hara joan zen behor gainean. Guardiak apuratuta zeuden. Handik denbora batera itzuli zen apaiza eta esan zien itxoiteko pixka bat gehiago Iruñetik mezu bat ekarri behar zietela-eta. Guardiék, behin eta berriz ezin zutela gehiago, baina hantxe gelditu ziren. Handik gutxira auto dotore bat, Haiga bat, iritsi zen aita libre

uzteko agiriarekin. La Equitativa Espainia-ko aseguru etxerik inportanteenetako bulego bat zegoen hemen Iruñean eta bertako zuzendaria, Francisco Barragan falangista, apaizaren laguna, nonbait. Haren bidez salbatu zen Domingo. Senide txikiak ez ziren konturatzen, baina amari eta niri hor barruan gelditu zitzaigun beldurra.

Noiz hasi zinen etxetik kanpo lanean?

14 urterekin Lekunberrira joan nintzen Ayestaran hotelera zerbitzatzera eta sukaldetan laguntzera. Han bi urte eman eta gero Errenteriarra joan nintzen, taberna batera. Jende ona zen, baina gutxi irabazten nuen. Uztapide eta Mitxelena bertsolariak maiz hurbiltzen ziren horra. Handik Donostiara. Alde zaharreko Urolan izan nintzen. Neska zahar bat eta mutil zahar bat zeuden, oso jende jatorra. Haiekin asko ikasi nuen. Errenterian, 20 urte egiteko nituela, nobio bat egin nuen, arrantzalea. Sei hilabete egoten zen kanpoan bakailao arrantzan. Donostiara joan nintzenean eskutitzak bidali genizkion elkarri hasieran, eta gero ezer ez. Lesakako mutil batek esan zidan Espainian ikusi zutela, Coruñan, diskoteketan eta neska batekin. Ezkontzekotan ginen hartan desgainatu nintzen erabat. Atsedean hartzera joan nintzen etxera eta aitak esan zidan han gelditzeko beste lan bat bilatu arte. Handik gutxira Eibarko hiru gizon etorri ziren neska baten bila. Oso jatorrak ziren eta ongi ordainduko zidatela esan zuten, 1.500 pezeta. Hara joan eta kontent. Bi hilabetera ezagutu nuen gero-
ra nire senarra izanen zena. Gizon jatorra, euskaldun garbi-garbia, azkoitiarra. Biok bekatu berdinean geunden: ni nobioa utzita eta bera andregaia, ume bat zeukala ez baitzion esan. Arrateko Ama Birjinaren egunean hantxe gonbidatu ninduen. Bera postu handi batean salda eta bokadiloak eta denetarik saltzen ari zen. Segituan familiak aurkeztu eta ezkondu ginen Azkoitian. “Hik merezi baino

CuadraBus

www.cuadribus.com

☎ 945 890 804 / 670 477 727 · Faxe: 945 892 215

info@cuadribus.com

IÑAKI BEREZIARTUA

Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828

www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

hobea dun!” esan zidan amak. Elgoibarren taberna txiki bat zeukan eta torloju fabrika zebilen txandaka. Hara joan ginen bizitzera. Orduan krisi handia etorri zen, oraingoa baino handiagoa.

Eta handik Soraluzera, zer dela eta?

Uholde ikaragarriak izan ziren 1951n. Presa lehertu eta taberna guztia urez bete zen. Harrez geroztik han ez zitekeen bizi eta alde egin behar izan genuen. Soraluzera joan ginen, lana baitzegoen. Senarra kanoi fabrika hasi zen lanean, eta ni torlojuekin. Bizia atera genuen ederki. Gero dendatxo bat jarri genuen oihalak saltzeko. Entzuna nuen Bergaran akatsa zuten telak merke saltzen zituztela eta hara joan nintzen fabrika batera. Bergarako ura berezia zen tintetarako eta han zeuden kotoizko tela fabrikak eta tindategi handienak. Onenak. Hasi nintzen telak ferietan saltzen eta izugarritzko negozioa egin nuen. Ene senarra ere gero hasi zen nirekin saltzen, plazetan biak, ijito moduan, eta etxe bat erosi genuen. Durangoko azokara joaten nintzen larunbatetan. Behin etorri zitzaidan gizon dotore bat eta negozio bat proposatu zidan: “Oso negoziantea zarela ikusten dut. Zuk ez zenuke elektrotresnarik salduko?”. “Nik edozein gauza saltzen dut” erantzun nion. Gizon hark lokal bat erosteko eta konpontzeko dirua utzi zidan. Generoa ekartzen zidan eta nik saldu egiten nuen. Gainera epeka ordaintzeko erraztasunak ematen zituen, garai hartan beste inork ez bezala. Hilabete bakar batean 27 telebista saldu nituen, amerikarrak onenak. Ongi zihoan dena, baina orduan senarra gaixotu zitzaidan. Appetitu onekoa zen eta bihotzekoak eman zion. Pasa zitzaion eta bost bat urte ongi egon zen, baina ondoren medikuak esan zigun hobe genuela Nafarroara etortzea, han kutsadura handia zegoelako. Soraluze zulo batean dago eta kea eta dena gelditzen zen. Bi haur genituen orduan, 8 eta 4 urtekoak. Baina

Zauriak

“Ezkonberritan, Elgoibarren nintzela, etortzen zen tabernara gizon zahar bat, eta etortzen zelarik ez dakit zer pasatzen zitzaidan, baina urduri jartzen nintzen. Senarrak esan zidan gizon horri ezer ez esateko oso bezero ona zelako. Baina gau batean gogoratu nuen zertaz ezagutzen nuen: nik 8 urte nituelarik aita atxilotzera etorri zen gizona. Lekunberrin ibilitako Guardia Zibilaren kaboa. Berari esateko beharra nuen, nahiz eta senarra haserretu. Hurrengo egunean sufriarazi ziguna esan nion denen aurrean. Negarrez hasi eta alde egin zuen. Ni trankil-trankil gelditu nintzen. Gero jakin nuen handik hiru hilabetera hil zela”.

temosoa zen eta ez zuen Nafarroara etorri nahi. Pentsatu nuen ni etortzea familiarekin, bera atzetik etorriko zelakoan. Dena saldu genuen. Erdia berari eman nion esanez astero Iruñera guregana etorri behar zuela. Nik esaten nuen “etorriko dun ba” baina ez zuen nahi eta horren orde z denda txiki bat jarri zuen Azpeitian. Jendea gaizki esaka hasi zen bananduta bizi ginelako. Gauzak ez ziren orain bezala. Nik San Lorenzo kalean pisu bat erosi, paretak bota eta 40 pertsonarentzako jatetxea jarri nuen, Gau Xuri izenekoa. Bitartean senarrak denda hori zeukan eta ferietara joaten zen saltzera. Baina egun batez esan zidaten Zornotzako azokan beste bihotzeko batek eman ziola eta ahotik odola eta guzti bota zuela. Handik egun batzuetara etorri zen eta esan nion hemendik ez zela mugituko. Modu txarrean hango denda saldu zuen eta hemen gelditu zen nirekin. Pozik egon ginen. Gida-baimena atera eta kotxe zahar bat erosi nuen. Gero senarrari ere erakutsi nion gidatzen. Ongi geunden baina gizonak ez zuen bere burua batere zaintzen eta 47 urterekin hil zitzaidan.

Senarra hil baino lehen jatetxea itxi zenuen. Zergatik?

Estudiante asko etortzen zen bazkaltzera eta ETako batzuk ere ibili omen ziren. Gure komedorean 1973an egin omen zuten batzar bat Felipe Huarte industria gizona bahitzeko. ETako asuntza hasi zelarik kendu nuen jatetxea eta Berriozarrera joan ginen bizitzera.

Berritik hastera, berriro.

Bai. Han gasolindegia bateko tabernan aritu ginen. Alargun gelditu ondoren adineko pertsonak eta gaixoak zaintzen eta enpresa bateko sukaldean lan egin nuen. Alaba nagusia oso gazte ezkondu zen 17 urteak bete baino lehen, bera baino 17 urte gehiago zituen kamioilari batekin. Bazeneki nolako suertea izan zuen! Ona! Eta denetarako balio duen



Mikeletegi pasealekua 53 • DONOSTIA
943308220 • www.arbelaitz.com



Arbelaitz Jatetxea



AZKEN HITZA

Aizarozko festak

"Bertsoak idazten hasi nintzen 60 urte bete ondoren. 1945ean Aizarozko festak nola-koak ziren azaltzen dut bertso hauetan:

*Eguerrietan festak
sortutako herrian
zenbat ni oroitzen naiz
denak Olitxean
ta zenbat jende biltzen zen
gure herri ttikian.
Kordeonakin Altsua
zerratokian
hotza ateratzeko
gu pozik baltsean.
Hango mutil ederrak
nahiko diru aldean
lana egiten zuten
gehienak Frantzian.
Lantegia oihanean
etzegon besterik
orduan ez baizan
inon fabrikarik.
Babak eta urdaia
eramanda etxetik
zagietan ardoa
Erribera aldetik.
Elurra egingatikan
etzegon bildurrik,
txerria hil berria
etzegon goserik.
Taloa eta esnea
otamen goizetik
Zenbat holako gauza
probatu ditut nik.
Oilarrak kukurrukan
goize-goizetik".*

Lehen negozioa

"Aita arotza zen eta Pasaia joaten zen burdina erostera. 12 urte nituenean lehen aldiz eraman ninduen Donostiara eta han fondan ezagutu genuen intendentzian zebilen soldadu bat. Hasi ginen hizketan. Estraperloaren garaia zen. Galdetu zidan ea nongoa nintzen eta proposatu zidan Gartzaron inguruko herrietan arrautzak erostea. Gero aita etorri zenean tratua egin zuten, arrautza eta axurien truke hark azukrea eta kafea ekartzeko. Astean bi aldiz aita erosi eta hiltzen zituen axuriak eta nik baserri eta herri guztietan arrautzak erosi. Egun batez Orokietako gainetik guardia zibilak ikusi nituen bidean. Saskian nituen arrautzak, kafea eta azukrea ezkutatu nituen iratze meta baten azpian. Guardiek alto eman zidatenean ez neukala deus esan eta mendian barna itzuli nintzen korrika etxera".

gizona da. Lau biloba jaio ziren Berriozarren, eta toki gutxi etxean. Egun batean irakurri nuen anuntzio batean etxe bat salgai zegoela Tirapun, eta suhiari esan nion. Etxe handi eta zahar hura erosi eta hara joan ginen bizitzera. Suhiaren eta alabaren artean den-dena konpondu zuten. Suhiak denetatik daki: kisuskil, zurgin, mekaniko... Eta han bosgarren biloba jaio zitzaidan. Orain landetxe ederra dute Tirapun.

Eta zu Iruñera.

Alabak erosi zuen Iruñeko parte zaharrean etxe bat eta, horrela, ni etorri nintzen hona. 60 urte bete nituenean hartu nuen erretiroa eta geroztik hemen nabil, beti gauzak egiten. Ni ezin egon naiz geldirik.

Taloarekin feriaz feria jarraitzen duzu?

Ez, aspertu egiten naiz. Kristoren lana hartzen da horrekin. Orain mantalak josi eta saltzen ditut.

Zu langile saiatua izan zara beti. Zer pentsatzen duzu egungo egoera ekonomikoaz eta krisiaz?

Zuek ez duzue ezagutu krisia! Zuek ezagutu duzue dena eginda. Horregatik dago oraingo saltsa hau. Zuk badakizu ama gaixoak zer eman behar izaten zigun jateko? Ogirik ez. Taloa, eta eskerrak. Txerria hiltzen zen eta horri esker baba beltza urdai pixka batekin bagenuen. Baina behiak eta dena errekiatzuten zuten ukuiluan. Eta txerriak berdin. Dena eramaten zuten. Goserik ez genuen pasa Jaungoikoari eskerrak, aita beti ateratzen zuelako zer edo zer. Zuek ezin duzue pentsatu krisia zer den!

Zu euskaltzale eta Iruñeko euskaldunen artean oso ezaguna zara. Nola ikusten duzu euskara gaur egun?

Arrisku handian. Gazteek hitz egiten dute, baina hala ere, ez dakit, beldur naiz. Maitasun pixka bat falta da. Nik uste dut ikasten dutela ikasteagatik, ez da lehengo gauza hura. Gazteek ikasten dute oso giro politikoan, tentsio handiarekin eta oso arraro ikusten dut. Lehen ez zen horrela.

Etxeko hizkuntza zen lehen?

Etxekoa eta kanpokoa. Adibidez, Basaburuan euskaraz gehien hitz egiten den herria Igoa da. Hango maitasuna eta elkartasuna berezia da. Hango neskak bailaran ederrenak izan dira beti, baina beti herriko mutilekin ezkondu dira. Kanpokoekin ez. Hango laguntasuna ikaragarria da. Eta beti euskaraz egiten dute. ■



AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Euskal ondarearen erakusleku

Nafarroako eta oro har Euskal Herriko ondarea eta memoria historikoa berreskuratzeko helburuarekin Enneco, haritzaren memoria egitasmoa martxan jarri du Nafarroa Bizirik herri mugimenduak. Euskal Herriko historia modu interaktiboan jasoko eta azalduko duen parkea moldatzeko asmoa dute Etxarri-Aranatzen. Proiektua auzolanean gauzatuko dute, eta haiekin lan egiteko deia luzatu diete herritarrei.

| MARTIN VICIOSO |



Ezkerreko irudian, parkera egindako bisita bat, parkerako eskultura egin duen Nestor Basterretxea artistarekin batera. Goian, basoa garbitzen.

OHIKO MUSEOAREN MOLDETIK aldenduko da Enneco: elkarreragilea izan behar duela azpimarratu dute, bertaratzen den ororen inplikazioa bilatu nahi dutela. Interpretazio zentroaren funtzioa ere izango du. Horregatik, gizarte zientzietan aditu direnen eta herritarren arteko topaketak egingo dira. Nafarroa Bizirik herri mugimenduko kideen ustetan, ikerketaren helburuak dibulgazioa izan behar du, gizarteak jaso behar baititu ekarpenak.

Egitasmoaren eta finantziazioaren plan-gintzan hiru fase bereizi dituzte: aurreproiektua, martxan jartzea eta proiektuaren garapena. Eremuaren moldaketarako auzolanak jada hasi dira, eta eraikin nagusia altxatzeari hurrengo urtean ekingo diote. Ateak 2016an irekitzea espero dute. Hala ere, gune irekia eta malgua izatea nahi dutenez, etengabeko garapenean egongo dela nabarmendu dute.

Nafarroa Bizirik fundazioko kide Patxi Abasolok maiatzean *Berriari* eskainitako elkarrizketan azpimarratu zuen krisi garaian horrelako egitasmo bat aurrera ateratzeko “aukera bakarra” auzolanean aritzea dela. Herri eragile eta eragile ekonomikoak elkartu nahi dituzte, eta Etxarri eta Sakanan ez ezik, auzolana egiteko deia Euskal Herri osora zabaltzeko. Orain arte, hemendik aurrera egingo diren lanak erraz-

ten jardun dira. Parkea egongo den basoa garbitu, zuhaitzak markatu eta bideak atondu dituzte.

Proiektuaren aurkezpenean, bultzatzaileek ikastolen sorrera gogorarazi zuten. Herritarren indarrak eta baikortasunez, 60ko eta 70eko hamarkadetan euskal eskola sareak ehundu zituzten. Orduko espiritu hura berreskuratuz Enneco eta beste hainbat proiektu aurrera ateratzea posible dela uste dute Nafarroa Bizirik fundaziokoek.

Euskal Herriaren bihotzean

Parkearen kokapenaren aukeraketa ez da zorizkoa izan. Sakana harana estrategikoki kokatuta dago: erdigune geografikoan eta kultur ondare ugari herri eta eremuen artean. Halaber, azpimarratu dute bertako turismoa eta jarduera ekonomikoa sustatzeko proiektu garrantzitsua izan daitekeela. Izan ere, krisi ekonomikoak gogor jo du eskualdean, eta bisitariak dituzten arren, Ennecok azken bultzada eman diezaikeela uste dute.

Bertako eta kanpoko turismoaren erreferente bilakatu nahi dute. Abasolok Bilboko Guggenheim museorekin alderatu du: “Ennecok munduari garena erakutsiko dion gunea izango da”. ■



HERIOTZA

Umeekin tabua nola gainditu

Ez daukagu harreman normaldua heriotzarekin, eta igartzen da. Gai unibertsalagorik ez dago, baina helduoi baliabideak falta zaizkigu umeen zalantzei aurre egiteko, batik bat gertakari zehatz baten aurrean, eta hala, haurrak babesgabe uzten ditugu. Idoia Sara irakasleak ipuinaren bitartez heriotza ikasketa curriculumean txertatzea proposatu du.

| UNAI BREA |



DANI BLANCO

URTEAN BEHINEKO hilerriranzko txangoa egingo dute familia askok aste honetan. Horietako zenbatek utziko dituzte umeak lagun edo senideren baten etxean, heriotzare-

kiko harremanaz babesteko asmo onez? Ez jakin, ez baitago horri buruzko estatistikarik, jakina. Haien beharrik ere ez dago, erraz ohartzen baikara gure jendarteak begien bistatik, eta batik bat umeenetik, ezkutatu duela heriotza.

XXI. mendeko mendebaldar helduok deseroso bizi ditugu heriotzarekikoak, are tabu bihurtzeraino, eta horrek isla du haurrei ematen diegun heziketan, nola familietan hala ikastetxeetan. Batez ere bigarren eremu horretan dauden gabeziak azaleratu zituen Idoia Sara nafarrak, iaz argitaratutako *Heriotzaren tra-taera eskolan (herioaz mintzo)* lanean. Karrera amaierako proiektu gisa ondu zuen Sarak azterketa, HUHEZI eskolan

Marmoles Soule

Hilarriak · Armarriak · Harrizko artelanak



Marmoles Soule Marmolak
Arizkun, Baztan (Nafarroa)
☎ 948 453 444 - 629 659 583

Eraikuntzarako materiala

GALPARSORO

Salmenta:
axulejo eta gresa
komunak · manparak · komuneko altzariak
obra hondakinen bilketa

☎ 943 300 145
Faxa: 943 300 012

Borda Berri industrialdea, 5. pab.
Andoain (Gipuzkoa)

pedagogia ikasketak burutzeko, hain zuzen.

Gertakari latz batek bultzatu zuen Idoia Sara heriotzari arreta eskaintzera. Ikasketak amaitzeaz zegoela, bikotekidea hil zitzaion bat-batean. Horrek ikusarazi zion hezkuntza sistemak era horretako egoerak kudeatzeko duen ezintasuna: alaben ikastetxeko irakasleak berarekin harremanean jarri ziren, aholku eske, haurrekin nola jokatu behar zuten ez zekitela eta.


Prestakuntza falta

Orobat, heriotzaren pedagogia ez da kontuan hartzen irakaskuntzan.

Sarak ondorioztatu duenez, gaiari buruzko bibliografia zabala dago, irakasleek uste dute eskolan landu beharreko esparrua dela, eta ikasleek txiki-txikitik agertzen dute interesa. Orduan, zerk eragiten du ikasgeletan hain gutxitan aipatzea heriotza, eta –sarri– hain modu desegokian?

Irakasleak, beste edonor bezala, ez daude prestaturik heriotzari buruz hitz egiteko, horra Sararen erantzuna. Bederatzi irakasleri egindako galdeketatik ondorioztatu zuenez, heriotza hurbil egokitzean baizik ez da berba egiten gaiak eskolan, eta halakoetan agerian geratzen dira hezitzaileen baliabide falta eta horrek eragindako segurtasun eza. Aipatzekoa da galdeketaaren beraren aurrean batzuek izandako jarrera: “Baten batek ez zela eroso sentitzen aipatu zigun, eta bi pertsonak ez zuten idatziz eman, ahoz baizik, *barrukoak mugitzen zitzaizkielako*”. Sararen esanetan nabarmena da heriotzaz hitz egitea ez dagoe la normalizatuta, ezta hezkuntza arloko profesionalengan ere. “Horregatik begitantzen zait formazioa dela bidea”, dio.

Sararen galderei erantzun zieten irakasleek ere heziketa beharra aipatu zuten. “Askok ez dute inoiz formaziorik jaso, osasun zentro-



Idoia Sarak
ipuina
proposatzen du
heriotzaren gaira
hurbiltzeko
lanabes modura.
Aztertu duen
bibliografian
aitona edo
amonaren
heriotzaz
dihardutenak
dira gehien
(*Aitona joan egin da, Zaintxo, Amona bizikletan...*)
baina badira
gurasoen (*Ama!, Hamabi galdera pianoari...*) edo,
kasuren batean,
ume baten
(*Adio, adio!*)
heriotza ardatz
duten narrazioak.

tan doluari buruz banatzen dituzten eskuorriak besterik ez dituzte ezagutzen”. Gutxi batzuek hartua zuten Iruñeko Irakasleentzako Laguntza Zentroak antolatutako hamabi orduko ikastaroa, gehienbat dolu prozesuan oinarritutakoa baina heriotzaren pedagogia azaletik baizik aipatzen ez duena.

Umeak babestu nahian, kontrakoa lortu

“Ongizatearen jendartean heriotza ekar dezakeen guztia (gaixotasuna, zahartzaroa...) ezkutuan mantentzen dugu”, dio Idoia Sarak. Heriotza prozesuak, gehienetan, ospitaleetan gertatzen dira, etxetik eta haurren bistatik urrun. Sararen azterketan, besteak beste, Iosu Cabodevilla psikologo nafarrak *Dolua haurrengan* liburuan emandako ideia hau aipatzen da: “Helduok pentsatu ohi dugu, oker pentsatu ere, haurrak babeste aldera, emozionalki ahulak direlako, heriotzak erakar dezakeen sufrimendutik aldendu behar ditugula”.

Babestu nahi horrek aurkako efektua izaten du, ordea. Goiz edo berandu, hurbileko norbaiten heriotza egokituko zaie ume gehienei, eta une horri aurre egiteko baliabideak ukatzen badizkiegu nekez garatu ahal izango dute dolu egoerarako estrategia egokia.


Hileta zerbitzuak - Beilatokia

LEA-ARTIBAI

Artabide 24 · 48700 ONDARROA

☎ 946 166 212 / 946 830 960

659 879 268





“Ongizatearen jendartean heriotza ekar dezakeen guztia ezkutuan mantentzen dugu”

Idoia Sara, Haur Hezkuntza irakaslea

Ikasgelan heriotza normaltasunez lantzea nahi luke Sarak, hilkortasunaren kontzientzia txikitatik garatzeko. Bizpahiru urte dutenetik umeek badute heriotzaren berri, haren esanahia erabat ez ulertu arren, gutxienez 10 urte bete arte. Izan ere, ez dira jabetzen ez dagoela heriotzatik itzultzerik; are gutxiago, txikien kasuan, eurak ere hilko direla.

Ipuina, heriotzaz jarduteko tresna egokia

Heriotza curriculumean txertatu behar dela argi du Idoia Sarak, baina ez du hain garbi ikusten nola. “Unitate didaktikoak sortu? Hamabost egunez gaia aztertu eta gero beste batera pasa? Hori baino gehiago da. Nolabaiteko sentiberatasuna, ikuspegi orokor bat... Zehar-lerroa izan behar du heriotzak, baina ez da hain erraza curriculumaren zurruntasunean horretarako tokia aurkitzea”.

Proposamen zehatza egiten du, hala ere: ipuinak erabiltzea. “Ipuinen bidez emozio-




“[Haurrentzako literatur lanen] ohiko ezaugarria da heriotzaren alde leunena besterik ez erakustea”

Txabi Arnal, EHuko irakaslea

nalki korapilatsuak diren egoerei heldu diezaiekegu”. Ipuinek enpatia garatzeko aukera ematen dute, eta aldi berean gai labainak distantziatik bizitzea errazten diote umeari.


Txabi Arnal EHuko irakaslea haur literaturan heriotzari eskainitako tratamendua aztertu zuen bere doktorego tesian. *Bellaterra Journal of Teaching & Learning Language & Literature* aldizkariari emandako elkarrizketan, idazle eta ikertzaile arabarrak zioen umeentzako literaturak oso gutxitan aipatzen duela heriotza. “Ez dago tristurarako lekurik. Arrakastaren jendartean bizi gara eta heriotza porrot modura hartzen dugu, horregatik baztertu da”.

Arnalek argiak eta itzalak atzeman ditu behatutako obretan. Gaiaren zenbait alderdi oso era egokian lantzen direla dio, baina beste batzuetan gabezi nabarmenak daudela. “Aztertu ditudan lanen ohiko ezaugarria da heriotzaren alde leunena besterik ez erakustea. Gaixotasun sendaezinak, suizidioa, euta-




Zarautz

Hileta Zerbitzuak



Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak



Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Araba kalea, 35 · Zarautz (Gipuzkoa)

☎ 943 894 937 / Faxe: 943 894 941 · harrespil@harrespil.net

Amilaga, 39 · Bergara (Gipuzkoa)

☎ 943 761 299 / Faxe: 943 761 299

Hilerrien gestioa · Hileta zerbitzu orokorrak · Zerbitzu iraunkorrak · Koroak · Eskelak



nasia... ia erabat kanpo daude. Hilotzaren deskripzioa eta denboraren edo gaixotasunaren ondorioz gorputzean gertatzen diren aldaketak ere lantzeko deserosoak dira”.

Gakoa, zintzotasuna

Heriotza zahartzaroarekin lotzen dute txikienek. Komeni da haur txikiei azaltzea gazte izanda ere badagoela hiltzerik?, galdetu diogu Idoia Sarari. Hona arrapostua: “Gordin baino, zintzo esplikatu behar zaizkie gauzak, norberak sentitzen dituen bezala, baina galdetzen ez badute ez dut uste horretan gehiegi tematu behar denik, ezinegon handia sortzen die eta”.

Hala eta guzti ere, ume txikienek zenbait gauza argi utzi behar zaiela uste du Sarak. Esate baterako, hil berri den pertsona ez dugula berriro ikusiko, edo ez dakigula non dagoen. Haurrek maiz izaten dute hizpide hildakoaren kokapen fisikoa (zerua, infernua, hilerria...). “Ohituta daude ‘zeruan dago’ entzutera, eta orduan galdetzen dute: ‘zeruan, baina non? Nik zerura begiratzen dut eta ez dut inor ikusten’. Garbi esan behar zaie zer gertatu zaion pertsona horri, eta orain gure oroitzen apenetan dagoela. Hortik haratago, zeruan

ote dagoen, izar bihurtu den... Umeek fantasia eraikiko dute baina azkarrak dira eta badakite bereizten zer den benetakoa eta zer ez”.

Sinesmen aniztasuna lagungarri

Familia bakoitzaren sinesmenek eragina izan dezakete heriotzaren hezkuntzan. Idoia Sararen galdetegiari erantzun zion irakasleetako batek honela zioen: “Gaur egun kultura ezberdinetako ikasleak ditugu ikasgeletan. Guztiei leku utzi beharko diegu, eta aniztasun horri probetxua atera. Niri behintzat, heriotza baten aurrean lagungarria suertatu zitzaidan”.

Ifrentzua litzateke familia batek trabak jarri nahi izatea irakaslearen lanari, eskolan azaltzen diren iritziak eta familia horren sinesmenak bat ez datozenean. Edo, besterik gabe, gerta daiteke gurasoek ezustekoa hartzea eta irakaslearengana galdezka joatea, umeak azaldu dielako egun horretan heriotzaz mintzatu direla eskolan. “Azalduz gero, berehala ikusten dute beharra. Nik jarrera aldaketa nabaritu diet, holakorik egokitu zaidanean”. Jendarte osoak jarrera aldatzeko, berriz, luzeago itxaron beharko da. Ea eternitate bat ez den. ■

Hurbileko baten heriotzari aurre egiteko baliabideak ukatzen badizkiegu, umeek nekez garatuko dute dolu egoerarako estrategia egokia



Moyua

hileta zerbitzuak

Zure momentu zailetarako



☎ 943 783 447 / 617 442 466

Otadui Gotzaina kalea, 27
20560 Oñati (Gipuzkoa)

mmoyua@telefonica.net

www.tanatorio-guipuzcoa.com



**June
Fernández**

♦
KAZETARIA

Haserretzeko eskubidea

VALERIE SOLANASEK 1968an idatzitako *Manifiesto SCUM* idazkian gizonen desagertzea proposatu zuen, gizarteari egiten dioten kaltea argudiatuz. Solanas-en biografia irakurtzen baduzue, gizonekin haserre egoteko arrazoi ugari zituela ulertuko duzue (besteak beste, aitaren aldetik sexu indarkeria pairatu izana). Hala ere, berak azaldu zuenez, manifestuaren asmoa literarioa eta satirikoa zen, eztabaida pizteko helburua zeukan.

Testu hori idazteagatik baino, Andy Warhol erailtzen saiatzeagatik ospetsua bilakatu zen. Zinema gidoi bat lapurtu ziola leporatu zion Warholi. Eskizofrenia diagnostikatu zioten, eta ospitale psikiatrikoetan pasa zuen bizitza erdia. Nahiz eta askok estremista baten erokeria hutsa dela esan, literatur kritikari zein akademiko anitzek bere obraren orijinaltasuna, indarra, gizarte patriarkalari egiten dion kritika ziztatzailea eta punkaren aitzindaria izatea gorai patzen dituzte. Feminismo erradikalaren erreferentzia bihurtu da egun.

Feminismoaren bertuteak aipatzerakoan beti esaten da odol tantarik isuri gabe gizartean aldaketa gehien lortu duen mugimendu soziala dela. Ni bakezaletasun horrekin identifikatzen naiz, baina zenbait kezka eragiten dit

Aitortu behar dut: doinu bortitza daukan adierazpen feminista ororen aurrean nire lehenengo erreakzioa deserosotasuna izaten da. Feminismoaren bertuteak aipatzerakoan beti esaten da odol tantarik isuri gabe gizartean aldaketa gehien lortu duen mugimendu soziala dela. Ni bakezaletasun horrekin identifikatzen naiz, baina zenbait kezka eragiten dit.

Berdintasunaren ameskerian hazitako belaunaldiko emakumeok oraindik ere sexu jazarpena, tratu txarrak eta diskriminazio anitz bizi ditugu. Espainiako Estatuan 50 emakume baino gehiago dira erailak urtero eta gizartearen erantzuna oso epela da. Erasoak etsipenez normalizatzea eta isiltzea irakatsi digute.

Autodefentsa ikastaroetan ohikoa da erasotzaileari aurre egiteko estrategia proposatzerakoan batek baino gehiagok erasotzailearekiko errukia adieraztea. *“Ante la duda, tú la viuda/ Zalantzarik badun, hobe alargun”* bezalako lelo feministen aurrean jendea asaldatzen da. Haserre eta autodefentsa ez datoz feminitatearen ereduarekin bat; gupida, oster, bai.

Telebistan ala zineman indarkeria nonahi agertzen da. Emakumeak euren burua defendatzeko gai ez diren biktimen paperean agertu ohi dira, baina gutxi onartzen dute errepresentazio horiek duten eragina; fikzioa dela diote. *Kill Bill* edo *Millennium* bezalako obretan, emakumeek indarkeria erabiltzen dutenean —askotan indarkeria matxista pairatu eta gero mendeku egarria asetzeko— Stallone-ekin baino deserosoago sentitzen gara. Bideo feminista batean ironiaz indarkeriaren erabilera agertzen baldin bada, ez da fikzioa bezala hautematen, baizik eta biolentziaren aldeko gonbite bezala.

Ez gara feministok —gizon matxistak baizik— pertsonak bortxatzen, jipoitzen eta erailtzen ditugunak. Baina gure haserretzeko gaitasuna itzalita mantendu beharra dago, kontrolpean egon gaitezen. Badirudi gizarte honentzat erasotzaile matxistak baino arriskutsuagoak garela, gure keinu oldarkorrek botere patriarkalaren kontrako mehatxuak baitira.

Feministok eraso sexistekin eta hauek gainditzearen kontrako erresistentziekin egunero topo egiten dugu. Baditugu, Solanasen moduan, haserre egoteko hamaika arrazoi. Eraso bat bizi dugunean ez da pedagogia egiteko unea, oihukatzea baizik. Ernegua erreprimitzea ez da bidezkoa, ezta osasungarria ere. Emozio hori nola bideratu eztabaida genezake, baina argi daukat, gure buruari haserretzeko eta defendatzeko eskubidea benetan onartzen ez diogun arte, ez gara *Erasorik ez erantzunik gabe* leloa betetzeko gai izango. Hainbeste beldur eragiten duena, baina hain beharrezkoa den leloa. ■





EUSKAL SORGINAK?
ATXILOTU EGITEN
DITUGU, GAU ETA EGUN
TORTURATU - SEGUNEZ5 -
ENTZUN NAHI DUGUNA
KONTATZEN DUTEN ARTE...

BERGIZAR
TERATZEKO
PLANA

ESPAINIARA EPAITU
GERO, KONDENATU,
ETA ZIEGAN SARTU...

EZ ELKARREKIN GERO!
BAKARTU ETA ERREINUKO
LAU KORNERRETARA
BARRERATURIK

KONDENA - LUZEA - BETE
ONDOREAN, PRESO
ATXIKITZEN DITUGU
URTEÑO BATZU-BATZUEZ

AZKENIK, PARADA
EMATEN DIEGU
BARKAZIOA ESKA
DEZATEN, BAI ETA
ARBUIOA' AGERTZEKO
ERE...
PLAZAN ERRE DITZIN

ISUNAK BESTALDE,
BISTAN DENA!



A G U R
CARCA ESPAÑA©

Iñaki Barcena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA ♦



INIGO AZKONA

Alternatiba

SEGURU ASKO Gernikara urriko azken astelehenean jende gehiago hurbilduko da, baina ez da berdina izango. Urriaren 6an Baionako hitzordura emandako erantzuna ederra izan zen. Ederra benetan. Egun berean, Barakaldoko BECen ospatu zen Biocultura-rekin lehiatu behar zuten Bizi talde ekologistakoek, eta ez zuten kale egin: 10.000 lagun, 50 hitzaldi, eta 200 talde inguru batu ginen, bide berriak jorratzera.

Gernikan eta Barakaldon zoritxarrez bezeroak dira nagusi, Baionan aldiz, aktibistak eta ekimen alternatiboak.

Ipar Euskal Herriko mugimendu ekologistak berriz ere “savoir faire” eta heldutasuna erakutsi dizkigu. Erronka globalak –aldaketa klimatikoa zein eredu energetikoaren eraldakuntza– eta lokalak –AHT, fracking, zero zaborrak– loturik daudela eta batera erantzun behar zaiela ongi plazaratu dute halaber. Are gehiago, protesta antolatzea ez dela nahikoa, hori ezinbestekoa bada ere, alternatibak ere landu behar direla. Gure ezetzak, kapitalismoak inposatzen dituen eredu sostengaezinari ezetz esatea bezain garrantzikoak dela, eredu kontrajarriak, solidarioak eta herrikoiak landu eta martxan jartzea, alor guztietan.

Alternatiba eguna, ziur nago, hemendik aurrera erreferentzia politiko nabarmena izango da Frantzia-

ko Estatuan ezkerrentzat, egin duten lana eta lortu diren emaitzak eredugarriak izan baitira. Ez nago hain ziur lorpen hori Hego Euskal Herrian antzerakoa izango denik. Maleruski, gure kultura politikoan ez da normala kausa komun baten aurrean –aldaketa klimatikoa, kasu– hainbeste jende desberdin biltzea, sigla eta jatorrien gainetik. Hori ez da denbora txiki-lortzen, hori lan sendo eta luzearen emaitza da.

Bestalde, Hego Euskal Herrian dema gogorra dugu. Aspalditik, kanpaina eta helburu ekologistak estatuaren arrazoi krudelarekin erantzun baitira, Lemoiz, Leitzaran, Itoitz edo AHTren kasuetan ikusi dugun moduan. Laster, Madrilen “tartalari”en aurkako epaiketak izango dira, euskal ekologisten aurkako erreprezio eroaren seinale. Logika hori apurtzea eta kriminalizazioaren bidea oztopatzea dugu euskal ekologisten aspaldiko zama astuna. Horretarako ere, eragile sozio-politiko askorekin aliantzak bildu behar dira, baina

Iparaldeko mugimendu ekologistak berriz ere “savoir faire” eta heldutasuna erakutsi dizkigu: erronka globalak eta lokalak loturik daudela eta batera erantzun behar direla

ondo dakigunez ezetzarekin soilik ez dira alternatiba zabalak sortzen.

Baiona Ttipiko karriketan bezala, Alternatiba egunak Euskal Herriko beste herri eta hirietan errepikatzea, bestelako mundu posible horren aldeko urrats sendoa litzateke. Hala bedi! ■



DANI BLANCO



Edu Zelaieta



IDAZLEA

Erredukzionismoa

KEXU DABIL jendea kalean, udazkena dela eta. Gero eta urrutiago ditugu iragan udako eguzki bero eta luze haiek. Heldu den urtera arte itxoin beharko dute hondartzak lehorrekoon bisita mukurutua berriz jasotzeko. Kexu dabil jendea, hemengo eguraldia kaskarra delako berez, petrala. Uda soilik maite dugu, nonbait. Iduri du udako eguraldia nahiko genukeela urte osorako: gainerako hiru urtaroak aise ezabatuko genituzke era plesbizitazio bidez, demokraziaren logika naturalaz.

Erredukzionismoa praktikatzeko garai egokiak ditugu, bistan denez. Murritzeten

giroa, baina, barren-barrenean daramagu, ez sakeletan bakarrik: musika mota jakin bat nagusi irratietan, literatura konkretu bat ageri erakuslehotan, programen arteko elkarren kopia telebistetan...

Eguraldiarekin gertatzen den erredukzionismo ariketa antzekoa egiten dugu munduaren zabalarekin: planetako dibertsitatearen hiru laurdenak soberan ditugu egiazki. “Mundu bat, urtaro bat, kultura bat” olatu kosmopolita aspaldi ari da gure hondartzak bustitzen. Moldatzen. Murritzten. ■





Onintza Irureta Azkune

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Norekin hitz egingo dut euskaraz?

(Osakidetzako langile baten galdera)

MARI KARMEN Osakidetzako langilea da. Behin baino gehiagotan saiatu da euskara ikasten (bere kabuz eta Osakidetzak lagunduta) eta ez dago gustura egin duen bidearekin (edo egin ez duenarekin). Hizkuntzarekiko gorabeherak kontatu dizkit berriketan ari ginela. Oso argigarria iruditu zait gogoeta.

– Euskara ikasten ari zara?

– Bai. Egia esan, ez da euskara ikasten hasten naizen lehenengo aldia. Seme-alabak txikiak zirenean ere aritu nintzen. Baina ezin nuen segi, egunean bi orduz joan behar nuen euskaltegira eta ez neukan denborarik. Lana, familia, euskaltegia... Zenbat aldiz esan ote nien euskaltegikoei egunean bi ordu gehiegi zela, ezin genuela hortara jarri!

– Hizkuntza ikasteko denbora behar da.

– Bai, baina ezin baduzu ezin duzu. Eta beste kontu bat: euskara zenbat ikasi behar da? Bazirudien euskaltzainak izan behar genuela! Hainbeste gramatika eta kontu! Nik euskaraz elkarrizketa arruntak izateko maila nahi nuen, ez besterik!

– Eta orain hobeto moldatzen al zara euskaltegian?

– Gauzak asko aldatu dira euskaltegietan. Ez daukazu derrigorrez astean ordu mordo sartu beharrik eta irakasteko metodoa ere aldatu da. *Online* aritzen naiz eta gero mintzapraktikan nabil. Dakidan gutxi hori erabili eginen dut! Nik ez dut euskaltzaina izan nahi, dakidana erabili eta gehiago ikasi nahi dut.

– Osakidetzako lankideekin ari al zara praktikatzen?

– Oso gutxi. Euskaldun zaharrek ez daukate pazientziarik normalean eta euskaldun berriek ez dute hitz egiten euskaraz. EGA ateratako lankideak dauzkat eta titulua atera zutenetik ez dute hitzik ere egin euskaraz. Nik Gasteizen eginen dut lan, eta esan behar da Arrasaten eta beste hainbat tokitan euskaraz asko eginen dutela lankideen artean.

– Askotan gertatzen da euskara ikasten ari dena enbarazu gisa ikustea, pazientzia behar baita laguntzeko.

– Nik ez dut euskara titulurik nahi eta behar, nik euskaraz egin nahi dut lanean, eta kalean ere bai. Saiatu naiz seme-alabak konbentzitzen euskaraz egiteko baina ez... Kua-drilla honetan ere (15 bat lagun gaude bi-hiru ezik beste guztiak euskaldunak) erdaraz eginen da.

Mari Karmenek aipatutako kua-drilla kolpera ezagutu nuen eta “lehenengo hitza euskaraz” proba egin nien denei. Ia denekin eginen dut euskaraz bakarrik gaudenean, taldean dena erdaraz. Proba hartan kale egin zidan Mari Karmenek, ez zen ausartu euskaraz dakien apurra eginen. Erdara hutsean izan dugun berriketaldi honetatik aurrera hizkuntza aldatu du eta euskaraz hasi zait. Gure arteko hizkuntza harremana aldatu dugu di-da batean. Poza nabari zaio euskaraz botatzen duen esaldi bakoi-tzean. Ea lankideekin eta lagunekin beste hainbeste lortzen duen. ■



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Trebiñori begira



XDZ

Oihane Perea

♦
Doinua: Itsasoari begira.

Gure mapari begiratuta barrua jartzen zait sutan nola Araba erdian egon ta Burgos duen lekutan. Demokraziak bere aurpegia erakusten du batzutan: Gehiengoaren etorkizuna gutxi batzuen eskutan... Eta Trebiño hor geratu da lau jauntxoren sudur puntan.

Gure aitona bertan jaio zen egin behar dut aitortza sustraieetatik entzun dezaket trebiñoarren ahotsa. Araban bizi eta daukate mugetan izen arrotza nahiz batzuk duten mingain luzea eta oso esku motza oraindik ere taupaka dago Trebiño, gure bihotza!

Gasteiztik irten Mendialdera basoz jazten da paisaia: herri txikiak, herri xumeak jende jator ta alaia begiradetan nabaritzen da min eginen duen gaia denek dakite badela behingoz betearazteko garaia trebiñoarren borondatea eta Arabaren nahia! ■



XXI. mendeko euskaldunaren larrua du Hamletek

Historiako lehen existentzialista, lehen heroi koldarra, poeta, eroa... Ispilu ugari du Shakespearek XVII. mende hasieran sortutako *Hamlet* antzezlanak. Sarrien taularatu den istorioa, antzeztokietan ez ezik, baita zineman ere, zaila da hainbeste irakurketa ezberdin izandako beste antzezlanik aurkitzea. Klasiko hau aukeratu dute Artedrama, Dejabu Panpin Laborategia eta Le Petit Theatre du Pain taldeek euren hurrengo proiekturako. Luhuson (Lapurdi) estreinatuko dute datorren azaroaren 1ean.

| MYRIAM GARZIA |

Argazkiak: Guillaume Meziat

CARLOS GIL *Artez* aldizkariko zuzendari eta antzerki kritikariak mugarriztat jo du *Hamlet* euskarara egokitu izana. Ramon Labaienen hitzak ditu gogoan kritikariak; 80ko hamarkadan, Eusko Jaurlaritzako lehen kultura kontseilari izandakoak euskarazko telebista, Euskadiko orkestra sinfonikoaren sorrera eta

Hamlet gureratzea euskararen eta euskal kulturaren egonkortasunaren seinale izango zirela uste baitzuen.

Xabier Mendigurenek idatzi du euskarazko egokitza pen a, zeinaren arabera Hamlet XXI mendeko euskalduna den. Milaka ispilu eta esanahi dituen pertsonaiari beste irakurketa



Ander Lipus Hamleten rolean.

berri bat egin dio, beraz. Ximun Fuchsen esku geratu da antzezlanaren zuzendaritza eta taula gainean Ander Lipus, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo izango dira. Musika Asier Ituarterena eta koreografia Philippe Ducourena dira.

Aipagarria da bestalde, Ipar Euskal Herriko hainbat elkarte eta kultur areto bildu dituztela proiektuaren inguruan, besteak beste, Euskal Kultur Erakundea, Hameka, Ote Lore, Ttattola Hazparneko gaztetxea, Eihartze Kultur Etxea, Hendaiako eta Bidarteko udalak, Biarritz Culture, Nafarroa Behereko Herri antzokia eta Kilika Azkaingo Gaztetxea.



Pertsonaia enigmatikoa

Hiru taldeen aurreko elkarlanak, *Errauntsak* obrak, harrera ona izan zuen, eta Donostia Hiria antzerki saria ere jaso zuen. Lan talde bera bildu da oraingoan. “*Errauntsak* sortu ondoren, argi zen elkarrekin lan egiten segitu behar genuela” dio Ximun Fuchsek, *Hamlet* antzezlanaren zuzendari eta Le Petit Theatre du Pain taldeko kideak. “Argi zen halaber, ez genuela *Errauntsak 2* egin behar. Gaiak aipatzerakoan, *Hamlet* fite aipatu zen elkarriketean”.

Klasiko bat, aintzinako mitoa dugu Danimarkako Printzea, teatro serioa. Mugarritzat har daiteke gaur egungo euskal antzerkigintzarako, baina Fuchs ez dago ados: “*Hamlet* aipatzerakoan beti argitasuna eta arintasuna hitzak etorri dira. Bai, enigma bat da: zergatik ez da ekintzara pasatzen Hamlet? Zer da justizia, zerk eragiten du ekintza eta pentsaera, beldurrak, hitzak, mendekuak, halabeharrak? Baina ez da mugarri bat, orain arte egindakoren segida bat baizik. Eta espero dut beste *Hamlet* asko proposatuko direla euskaraz, eta normalizat joko dela”.

Ander Lipusekin batera, Ainara Gurrutxaga, Manex Fuchs, Maika Etxekopar, Iñaki Ziarrusta, Miren Tirapu eta Urko Redondo ariko dira oholtzan.

Mendigurenak Euskal Herrian eta XXI. mendean kokatu du antzezlan. Anbizioa, mendekua, eromena, kospirazioa... Horrek denak badu tokirik gurean? “Hori da pausatzaren dugun galdera, hortan da hauzia. Mila teoria izan dira *Hamlet*en inguruan: Hamlet lehen protestanta izan dela, judua zela, homosexuala, emakumea, komunista... Gurea, berriz, hau da: Hamlet gaur egungo euskaldun bat da. Gero, publikoari dagokio testuaren oihartzunak preziaztea”, zehaztu du Fuchsek.

XVI. eta XVII. mendeen artean idatzi zuen Shakespearek tragedia, Ingalaterrak kulturalki urte loriatsuak bizi zituelarik. Jatorrizko antzezlanak hizkuntza aberatsa erabiltzen du, Danimarkako gorteetako pertsonaiak baitira gehienak. Poetikotasuna oso presente dago *Hamlet*en bakarriketetan. Xabier Mendigurenen egokitzapenak aurre egin behar izan dio jatorrizko testu koplexu horri. Fuchsen hitzetan “Shakespeareren moldean egin du lan Mendigurenek, hots, aktoreekin. Bere proposamen guziak oholtzatik pasa dira, eta hizkuntza aktoreekin findu da. Lan handia

www.eurekamuseoa.es

Udara honetan Gidatu Eureka!n

kuxabank

eureka! zientzia museo

ellauri HOTELA

KILO TERDI TXOKOA

Kilo t'erdiko txuleta
Legatz-solomoa plantxan
(6 pertsona gutxienez, aurretik deituta)

Altzusta 38, 48144 ZEANURI
+34 946 317 888 | ellauri.com

Naturra sentitu

Xabier Mendiguren: «Guztiok gara neurri batean Hamlet»

Nola hartu zenuen Hamleten egokitzapena egiteko lana? Nondik hasi zara?

Ez da berez proiektu pertsonal bat izan. *Publikoari gorroto* obraren lanketan zehar, Fuchs, Lipus eta gainerakoekin lanean jarraitzeko gogo sortu zen; zenbait bilera izan genituen gero, zer egin erabakitzeko, eta hauxe adostu genuen azkenean.

Posible da *Hamlet* Euskal Herrian eta XXI mendean kokatzea?

Bai. Zuk diozun bezala, gaur eta hemen, Euskal Herrian eta XXI. mendean, gure arazo guztiekin. Jatorrizko istoriotik zer dagoen eta

zer ez jakiteko, ikustera etorri behar.

Hainbat ispilu izan ditu Hamlet pertsonaiak historian barrena. Nolakoa da Hamlet Xabier Mendigurenen begietatik ikusita? Poeta? Eroa? Koldarra?

Alderdi asko dituen pertsonaia da Hamlet, dudarik gabe. Eta, horrez gain, guztiok gara neurri batean Hamlet, edo guztiongan bizi da Hamlet txiki bat. Ikuspegi hori ere azaltzen du obra honek.

Jatorrizko antzezlanean hizkera gortesaua erabiltzen du Shakespearek, korteetako pertsonaiak dira gehie-

nak, hizkuntza kultua erabiltzen dute. Zein baliabide erabili duzu testuan?

Erregistro ezberdinak erabili ditugu: palazioan palaziokoa, eta kalean kalekoa.

Hamlet bezalako antzezlan bati aurre egitea mugarria al da euskal antzerkigintzarako?

“Mugarri” hitz potolo samarra da; gauzak ondo egiten saiatu gara gu, publikoari lan mamitsu bat eskaintzen, estetikaz eta edukiz zer pentsatua emango diona, eta horretan jarraitu nahi genuke aurrerantzean ere, euskal teatroa aberasten.

egin du jatorrizko poesia eta gaur egungo hizkuntzaren artean oreka mantentzeko”.

Hala ere, zaila izan da jatorrizko testuari fidel jarraitzea, Shakespeareren jatorrizko antzezlanak sei atal baititu eta luzea baita. “Hautuetan izan dugu erronka, erran nahi baita, ez dugu la muntatu sei oreneko antzezlan bat, ordu eta erdiko baizik. Hari narratiboa berrantolatu da eszenatokia, ekintzaren eta batik bat gaien arabera”.

Espazio hutsa eta argitsua aukeratu du zuzendariak. “Espazioa utzi nahi nien aktoreei, ezereen oztoporik gabe. Horrek jokoaren beharra sortzen du, haurrek bizi duten moduan. Antzerkia ez da iluna, gogorra noiztenka bai, eta tristea ere izan daiteke, baina ez iluna. Espero dut tragedia honetatik plazera eta bizipoza ateratzea tragedia honetatik. Horretan aritu gara aktoreekin, haurtasuna bermatzen une orotan”.

Poeta ala eroa?

Ander Lipus dugu XXI. mendeko haragizko Hamlet euskalduna. Zaila zaio aktoreari, obra hau definitzea, “baina egia da, euskal antzerkigintzaren behar jakin batzuei erantzuten diegula, esaterako klasikoek egokitzapenari”.

Jatorrizko antzezlana eta egokitzapena izan



dituzte aktoreek, biekin egin dute lan. “Zazpi aktore gara eszenan eta bakoitzak baditu hainbat pertsonaia antzezteko” dio Lipusek. “Hala ere, ez dira Shakespearen obran agertzen diren pertsonaia guztiak agertzen. Jatorrizkoarekin konparatuz, esango nuke dramaturgia apurtzailea izango dela”.

Hamleten bakarrikzetei aurre egiteko erronka nola hartu duen galdetu diogu Lipusi, eta hauxe erantzun digu: “Testu bati aurre egiten diozunean, beti da erronka. Hitz horiek zureganatzea da helburua, eta ondoren publikoari transmititzea. Niretzat, obra bakoitzak bere garrantzia, bere dimentsioa du, izan *Hamlet* edo *Peru Abarka*. Pertsonaiaren hitz horiekin nola dantzatzun duzun da gakoa, eta batez ere, nola transmititzen duzun. Gure zuzendariak esango lukeen bezala, publikoari galderak pausatzea gatoz, Euskal Herrian bizi ditugun egoera bortitz jakin batzuen aurrean zer egin galdetzeraz.

Historian hainbat *Hamlet* egon dira. Erreferentzia horiek ez ditu gogoan izan Lipusek: “Nork bere azalean tatuatuta daramatzagun bizipenak dira erreferentziarik hobeenak, benetazkoenak”. ■



Azken

IKASLE DANTZA

AZAROAK 16 · ILUNBE DONOSTIA

18:00tan #25urte ekitaldi nagusia

ZE ESATEK!
BAD SOUND SYSTEM
GOSE
BETAGARRI
+KOLABORAZIOAK
DANK · AMAIUR · EDAN · ANGER · DES-KONTROL ·
MALDAN BEHERA · ON · FRANCIS · ...
LAS TEA PARTY DJS

AURREZ | BERTAN
13 | 18

@IAbertzaleak | azkenikasledantza.tk

Ikasle Abertzaleak

25
URTE





Helduen Literatura

Mendekoste gereziak
Jean Etxepare Landerretxe.

Erein, 1991

Garaiari zegozkion bidezidorretan

BATEKIN aski ez eta bi Jean Etxepare ditugu euskal literaturan. Irakurleon zorionerako, bistan da, bi-biak izan baitira, bakoitza bere garaian, bere zereginen, izen nabarmengarriak. Gure gaurko Etxepare da Landerretxe, “gaztea” ere deitua, ez umore beltz gutxiarekin: gazterik hil zelako deitzen zaio hala. Eta gazte hil zen, alajaina, 24 urterekin, bihotzeko eritasunak eramana. Ordurako, ordea, idatzita utzi zituen antzerki lan batzuk, ipuinekin lortu zuen goren gradua. *Mendekoste gereziak* da azken gintza horren emaitza. 1957tik 1961era bitartean hainbat aldizkariatan ateratakoak sartu zituen Piarres Xarritonek bertan, 1963an, Goiztiri etxean. Guk irakurri dugu 1991n Inazio Mujika Iraolak Ereinerako apailatu ziona.

Eta ez dut liburua hona ekarri haurrentzat diruditen ipuin horiengatik. Nahiz batzuk diren karamelu hutsa: “murru guziak dena zukrea dira, arbola guziak dena xokoleta, fruita guziak dena oñoña”. Nahiz batzuk, azaleko lainotasunaren azpitik, ezkututzen duten zerbait ilunagoa. Ez dut liburua hona ekarri bukaera aldera dituen artikulua apur horiengatik. Nahiz 68a urrun delarik oraino euskara batua fermuki eskatzeko argitasuna erakusten duten: “Eskuararen batasuna ez badugu egiten, xahu gure eskura maite”. Ez dut ekarri Baionako zezen-plazako korridoren kronikengatik –Luís Miguel Dominguin, “plazatik atera da, gaiztoa, oihukatuta eta xistukatuta”–, edo bilduma errematatzeako irakur daitezkeen bi poemengatik –bata, gainera, portugesetik itzulia–.

Liburua hona ekarri dut, batez ere, “Kurutze gorriak”, “Argi-zirrinta”, “Itsas-izarra” bezalako ipuinengatik. Harrapatzen duelako kanpañaren akitzea, hiriaren esklabotza, Ameriketako diru erraza. Esaten digulako, punkien aurretik, etorkizunik ez dagoela, edo egotekotan beltza. “Ardiez, bihie, aroaz, herriko sortzez, hiltzez eta ezkontzez” bai-zik ez dakigulako mintzatzen euskaldunok. Egiten duelako inobilismoaren kontra: “Beti leku berean egoitea ere gibelerat joatea da”; irakurzaletasunaren alde: “ez dute senditu behar norbait katiximatik kanpo oraino katixima egiten ari zaiotela”; gizon-emazte harreman osasuntsuagoaren aldarria: “Sobera maite dut Mayalen haren nagusi izateko”. Ikus zer dioen soldaduez “Kurutze Gorriak” ipuinean. Zer dioen gerlaz “Etxekoak” izenekoan. Zer dioen laborantzaz: “Eskual-Herria ez dutela ote ta iratze zangoek salbatuko”. Xarritonek ere igarri zion.

Eta ekarri dut, ez duelako agian Martin Ugalderen 1961eko *Itzailleak* haren, generoan lehena, batasun tematiko eta estilistikorik. Baina bai, ipuinak moderno izan nahi zuen hartan, nobedadea ekarri zuelako, eta sartu zuelako generoa garaiari zegozkion bidezidorretan. ■

Aritz Galarraga




1 irakurri



2 hautatu



3 erabili



4 Egin iruzkina

Rock and roll itzela

ELORRIOKO Sermond's taldeak beste urrats bat aurrera egin du bere lan berriarekin. Kantuak entzunez hainbat aldaketa sumatu ditugu *Amaiera hasieran dator* aurreko diskoaren garaitik.

Alde batetik, taldea bostkote izatetik laukote izatera pasatu da. Tximis (bateria), Koldito (baxua eta ahotsak), Gotz (ahotsa) eta Moin (gitarra eta ahotsak) dira Sermond's taldeko kideak, gaur egun. Gitarra jotzaile bakar batekin aritzen dira orain, baina, hala ere, doinu mardula gauzatzen jakin dutela argi dago diskoa entzunez gero.


Bestetik, *Bidegurutzean* lanak aurrekoak baino kutsu existentzialistagoa dauka. Gizakiaren eta garenaren inguruan egin dute gogoeta, eta gizakiaz eta munduaren norabideaz nazkatuta daudela nabarmena da.

Diskora bildu dituzten sei kantuetan zorrotz mintzo dira: "Agortu ditugu ur putzu denak, ito behar dugu egarritz" (*Bidegurutzean*), "Gure ama zaindu, lurra usaindu, berpizte izpi bat bilatu, berriz irauli, masailak eutsi, ukabilak gora eta kalera!" (*Harri boni*), "Hau ez da uste genuena, ez gara erosu sentitzen, ekoiztea behar ez dena, eta zaborra edonon gainezka" (*Igneo*), "Gure bizitza aurrera doa eta inori ez zaio inporta, seme-alaben irribarrea izango da gure mendeakua" (*Inori*), "Azkarregi bizi nahi, gudan urtuz noraezean, eguzkira heldu orduko kixkaltzen baikara" (*Noraezean*), "Gizakiak nahi du izatea kontrolatu, artistak nahi du animalia izan" (*Parez pare*).

Baita diskoari buruzko datuak eta gainerako nondik norakoak emateko azalpenetan ere: "Abesti hauek gordetzen dituzten amodio eta elkartasun doinuak, urrun eta bahiturik jarraitzen duten lagunei eskaintzen dizkiegu".

Azkenik, soinu berri batzuk aurkitu dituzte, ahotsa apur bat leundu dute, eta kantuen leloak buruan erraz geratzen zaizkigu. Hard rock erritmoei eta melodiei eutsi diete, eta stoner-rock estiloen murgildu dira. Black Sabbath mitikoen, nahiz Hellacopters eta Eskandinaviako beste zenbait talderen aireak sumatzen ahal dira kantuetan. Sermond's taldekoek doinu trinko eta ozena lortu dute, indar eta kemen handia transmititzen dute, eta hard rock-and-roll kutsuko lan ederra osatu dute.

Grabazio saioak Tolosako Bonberenea etxeko estudioan, Moin gitarra jotzailearen etxean eta taldea-



Bidegurutzean
Sermond's
Mauka musikagintza, 2013



ren entsegu lokalean egin dituzte. Karlos Osinaga grabazioaz eta nahasketez arduratu da, eta Sermond's taldeko kideei diskoa ekoizten lagundu die. Jonan Ordorikak grabazioaren masterizazioa egin die, eta Ibon Urizarrek diseinu lanak eta argazkiak egin ditu.

Sermond's taldea duela urte batzuk sortu zenean punk rocka zen bere ardatz nagusia. Urteotan taldeak bilakaera nabarmena izan du, eta rock gogorean eta stoner giroko doinuek murgildu da.

Hasieran, Tximis, Koldito, Gotz eta Moin egungo partaideekin batera, Biziush zen taldeko bosgarren kidea. Aipatu bost musikariak Arto Bixarra, Dirties, Mus, Kuntur Lee, Txakurren Putse, Midnight Murders, Perros del Diablo eta Yoko Out taldeetan aritzen ziren Sermond's sortu aurretik. Sermond's-en lehenengo diskoa (*Azken Bala*) 2009an kaleratu zuten, eta bigarrena bi urte beranduago (*Amaiera hasieran dator*).

Azken urteetan, Euskal Herriko talde ugari gitarra soinu oinarritutako punk rock gogorra landu izan dute, Ameriketako Estatu Batuetako eta Eskandinaviako makina bat taldek egiten duten bezala, baina gutxi lortu dute beren nortasuna nabarmentzea, kopia hutsak egin gabe. Sermond's da horietako bat. Beren gustuko soinuak, melodiak eta erritmoak ederki baliatu baitituzte beren egitasmoa osatzeko: Sermond's.

Bidegurutzean lana entzuten dugunean piztu egiten gara, suspertu, transmititzen duten energia eta grina handia baita. Eta are gehiago, beren jendaurreko emanaldi batean gaudenean, beren saio bakoitza ikuskizun itzela baita. ■

Joxi Ubeda



Hitz gezidunak

BIRA, ITZULIA PELIKULA		PERTSONAIA- REN IZENA LORATU		ZAKURRAK		1500 EUSKAL HERRIKO MENDIA		NEUK FRANTSESEZ, KALEA		DAUKATE GATZA ATERATZEN DEN LEKU		IZAERA, ESENTZIA OINARRI, SOSTENGU	
				PERTSO- NAIAREN 1. ABIZENA MUSIKA NOTA									
RIAD-EKO HERRITAR						EZEZTATUA BITAMINA- MULTZOA							
BALIO BERE- KOA DENA										AZTERKETA MOTA EUSKAL FONEMA			
TENISEAN, JOKO-SAIL	ABANTZU, KASIK ADINEKO										SUARI DARIONA ESALDI		
			PINDAR, TXINGAR							NAHIA, DESIRA IBERiar HITZ ELKARTETAN			OINA DUENA
DAUKAT DAGO													
		10 EGOKI, ERARA								BARRE TENPERATU- RA ALTU			
OIHU, HOTS PERTSO- NAIAREN 2. ABIZENA													
				INBUTU SORTU ZINTUENA		BEGIRADA JUSTU, NEURRIZ		ODOL TALDEA RONA		APAINGARRI TXIKI NIOBIOAREN SINBOLOA			DEUTERIOA BIGARREN MUSIKA NOTA
ELEMENTU KIMIKOA KLASE APA- LEN ALDEKO DOKTRINA						ITURBURU SUFREA							
											IZAERA EDO ZENTZU EGOKI		

Kike Amonarrizen umorea

Gaitz bera

Sendagileak gaixoari:

– Eta goizetan
jaikitzen zare-
nean, nabari-
tzen al duzu
minzuririk
gerrialdean?
Eta orratz bat
sartuko balizute
bezalako zitzada bat
sorbalda ziztada bat
zure burua deprimiturik



bezala sentitzen al duzu?

– Horixe bera gerta-
tzen zait goizero,
mediku anderea!

Eta isilik eta
bere kautan
s e g u n d o
batzuk iragan
ondoren...

– Baita niri ere! Zer
ote da?

Soluzioa

I	D	N	M	O	A	J	F
E	U	I	R	R	L	I	R
Z	I	G	O	A	A	A	B
A	T	K	A	I	D	I	A
E	S	E	D	E	O	E	T
T	E	T	E	I	N	X	D
K	E	O	P	A	I	R	I
		I	B	E	R	P	I
							N
							A
							D
							U
							R
							E
							N
							S



Inkomunikazioa baliatu eta komunikazioa sortu

KOMUNIKAZIOA/INKOMUNIKAZIOA. Arriaga Antzokiak, Tanttaka teatroak eta Kukai Dantza Konpainiak sortutako ikuskizunaren nondik norakoa islatzen du izenburuak berak. Hamaika erpin gehitu dizkionte komunikazioaz ulertzen den kontzeptu karratuari. Hitz edo hizkuntza desberdinen nahasketaren bidez hainbat egoera irreal irudikatu dituzte, baina elkar ulertzeko lengoia aurkitu dute: dantza.

Kukai Dantza Konpainiak eta Tanttaka teatroak elkarrekin egiten duten laugarren lana da honoko hau. Musika, dantza eta antzerkia uztartzen ditu oraingoan ere. Mireia Gabilondo aktoreak egin ditu zuzendari lanak eta Jon Maia dantzariak zuzendu dizkie oinak.

Dantza inkomunikazioarekin lotu ohi da, ezin komunikatzearekin. Mito hori irauli nahi duen mugimenduez beterik dago ikuskitzuna. Partaide bakoitzak bere esparruan lortu nahi duen askatasuna eta publikora iristeko nahia nabarmentzen da. Eta bereziki pertsona ezezagunen artean elkar ulertzetik badagoela, nola edo hala. Aipaturiko inkomunikazio horri lehen silaba kentzeko gogoz igotzen dira oholtzara, aire freskoz, sentimenduz eta askatasunez beteriko edabea gosaldutako balute bezala.

Aldarrikapenez beteriko emanaldia da, beraz; mezu eta detaile txikiz osaturikoa. Ikusle bakoitzak bere

modura ulertuko du, jaso dituen izpi horien arabera. Euskal Herrian eza-gunak ez diren hainbat hizkuntzen arteko mazedonia jango du publikoak. Ulertzeko zailtasunek harremana zaildu eta arreata galtzea ekar badezake ere, ezezagunena litzatekeen lengoia ulertzen hasiko da: dantzarena. Mugimenduez adierazteko nahia garrasika azaltzen dute, bereziki Kukai Dantza Konpainiak. Ikuskitzuna, hortaz, gorputz espresioa da, gorputzen kontakizuna.

Laboaren musika eta isiltasuna

“Komunikazio-inkomunikazioaren begietatik so egin ohi zuen Mikel Laboak eta inspirazio iturri horiek irekitako leihoetan ipini dugu begirada”, idatzi dute aurkezpen liburuxkan. Laboaren musika usaintzeko aukera eskaintzen dute, beraz. Baina, hala ere, isiltasunak hartzen du protagonismoa. Dantzaren lengoia indartsua ulertzeko beste argudio bat litzateke hori. Partaideen gorputz atalek jarri dizkiote musika notak isiltasunari: pausoe, txaloe, txistuek, gonek, arnasak, asmoek, begiradek...

Era berean, eskusoinuak eta perkusioak girotu dute eszenatokia hainbatetan. Euskal doinu ezagunetatik tangoaren doinu dotoretarainoko aukera zabaltzen da. Musika zuzenean egina da. Une batzuetan ahotsak ere entzuten dira, antzerkia baitago tartean. Tanttaka teatroak



hartzen du esparru horretan protagonismoa. Miren Gaztañagak eta Aitor Beltranek irudikatzen dituzten pertsonaiek begiak gehiago zabaltzea lortu dute, umorea ere tarteko dutela.

Musika mundua oinarri, zer modu hoberik eskusoinuarekin alderatutako metafora batekin amaitzea baino. “Ezkerreko eskuak bihotzeko taupadak adierazten ditu. Hauspoak arnasa. Eta eskuineko eskuak esperantza”. Hala zioten Aitor Beltranen azkene-

**Ainhua
Mariezkurrena**





Euskal Herria ezagutuz
AGURAIN (ARABA)

Harrizko herri hau

Agurain ez dago dagoen tokian kasualitatez. Nor ez da noizbait Aguraindik pasa? Iruñera bidean, Bilbora doala, edo etxera bueltan. Ez dago Aguraina propio joan beharrik, non dagoen jakiteko. Agurainen ez da biderik bukatzen, bera dago bidean. Ez dago ezkutuan hurbiltzerik. Beti begira, beti zelatan, beti zain, ortzi-mugan norbait ikusten duenetik bere harrizko besarkadan estutzeko bezainbeste gerturatzen den arte.

| NAROA SASIETA |

Argazkiak: Pedro Tapias / Baskimagen

ARTZAINAK ETA EHIZTARIAK, Nafarroa zein Gaztelako erresumek bidalitako gerlariak, kontrabandistak eta aduaneroak, merkatarik eta erromesak. Guztiek ikusi dute Agurain lautadan sartzean eta guztiak ikusi ditu Agurainek, gerturatu ahala. Horregatik dago Agurain dagoen tokian.

Duela 5.000 urte abeltzainak arabar ekialdeko lautadako muinetatik pasatzen ziren, abereak udako mendi-larreetatik neguko larre lauetara eramateko. Agurain inguruan eraikitako trikuharriak dauden lurralde beretik. Urteen eta mendeen joan-etorriak basoak larre eta soro bihurtu zituen eta larre eta soro haien artean marraztu zuten erromatarrek Bordeletik Astorgara eraikitako bidea, Iter XXXIV galtzada. Galtzada zahar haren harriak hartzen dituzte oraindik ere hankapean San Adriango tuneletik, Santiagora bidean, Aguraindik pasatzea aukeratzen duten erromesek.

Erregearen plana

Baina Agurain ez da beti harrizkoa izan. 1200. urtera arte Nafarroa izana, Gaztelako erresuma Agurainen jabe egin zen urte hartan. Laster jabetu zen Alfonso X.a Jakin-

tsua Donostiara bidean beste gel-toki bat behar zuela eta 1256. urtean hiribildu forua eman eta Hagurain herrixka Salvatierra bihurtu zuen. Ordukoa da herrian sartzeko zeharkatu beharreko harresia, eta ordukoak horretarako dauden zazpi ateak. Bisita, erregeak bezalaxe, Erregearen Ataritik sartuta has dezakegu. Lurrak ilar-gia bezala, San Juan enparantzako gotor eliza erraldoiak plazara erakkariko gaitu. Haren XV-XVI. mendeetako horma sendoek eta leiho estu eta urriek argi erakusten dute eliza ez zela meza entzuteko bakarrik erabiltzen.

Elizaren parean, ezkerreko kale-tik gora segitzen duen arkupe handi ilara luze bat ikusiko dugu, eta haren ondoan beste bi kale. Gaztelako erregeak Kantauriko portueta-rako bidea, txirrindulari lasterketa bat balitz bezala, gurdiz egun bakar batean egin zitezkeen etapetan banatu zuen. Guardia, Vitoria, Segura, Villafranca, Salvatierra... Izen propagandistikoaz gainera, herri horietako askok egituraren ere badute elkarren antza: herriaren alde banatan egon ohi diren elizen parean elkar aurkitzen duten kale luzeek osatzen dituzte.

Hiru kale daude Agurainen. Erdikoa, Nagusia. Gurdian pasatzeko adinako zabalera du, eta bertan daude herriko etxe dotoreenak. Ezkerrekoa Zapatari kalea da, eta eskumakoa berriz, Harategien kalea. Azkeneko horretatik gora abiatu aurretik, elizaren bestaldean, harrizko koxkahandi batzuen atzean dagoen auzunean erreparatu dezakegu. Ez da akaso begira egoteko ikusgarria, baina aguraindarrak Urdai Gutxi izenez ezagutzen dugu herriko txoko hori. Hori zen Aguraingo judutarren auzoa, eta bertan dago harresiaren beste zazpi ateetako bat. Erregea bezala sartu, eta judutar bat bezala aterata, harresiaren inguruan bi kilometroko osteratxo polita eman daiteke, atzera Erregearen atarian azaldu arte.

Harategien kalea

Jende eta kotxe gutxi ibili ohi da Harategien kalean, eta bukaera arte ez dago ez taberna ez dendarik. Zenbait txokotan mende batzuk atzera egin dela imajinatzea ez da zaila. Kalearen hasiera enparantza bat da berez, herriko besteak bezala, foruarekin lortu zuen azoka ospatzeko baimena baliatzeko erabilgia garai batean. Baina kalean



Olbe edo oholbeak. Hala esaten zaie Agurainen arkupeei. Herriko lehenbizikoak azoka egiteko eraiki zituzten aguraindarrek.



Azkarragatarren etxe dotorea.

behera abiatu orduko, harrizko hormek estu hartuko gaituzte. Eskumata, lekaimeen komentu erraldoia. Ate gainean herriko armariaren alerik zaharrenetakoa duela. Beheraxeago, kantoira iritsi aurreko azkeneko etxea, Alargunena. Hori da Agurainen dagoen eraikin zibilik zaharrena, 1564. urteko sutea baino lehenagokoa baita. Bideak ez zituen merkatari eta erromesak bakarrik ekarri: urte hartan 600 lagun baino gehiago hil omen zituen izurrite beltzak. Eta suak, akaso, izurrite beltza hil zuen. Alargunen etxea omen zen ordura arte Agurainen zegoen

harrizko etxe bakarra, eta horregatik iraun omen zuen zutik. Sutearen ondoren, ordea, harrizko harresiak behera egin zuen, suak erretako egurrezko etxeen lekuetan harrizko etxeak eraiki ahala. Horien artean, plazara iritsi aurretik ikus daitekeen hamarrenak jasotzeko etxea. Armari txikiko hiru galburuek salatuko dute.

Iparraldeko atea

Konturatzerako kaleak elkarrarazten dituen beste gotor eliza izango dugu begien bistan, eta guri begira. San Juanena bezalaxe, Santa Maria-



ren hau ere XVI. mendeko eliza gotikoa da. Eliza-atarira sartu gabe, eskuma aldeko paretan ondo begiratzuz gero, zerealen azoka ospatzeko prestatuko txokoa ikusiko dugu. Argi ikus daitezke horman izenak, parean zakuak jartzeko prest: trigo, cebada, alolva... Eliza-atariaren ezkerrean pausoa luzatuz gero, berriz, Aguraina sartzeko jatorrizko Iparraldeko Bidea ikusi daiteke.

Iparraldeko hau zen Gipuzkoatik, Aratz eta Aizkorri mendien artean dagoen San Adriango tunela zeharkatuz zetozen erromesek herrira sartzeko erabiltzen zutena, eta dutena. Haien bideari jarraituz, Azkarragatarren etxe dotorearekin egingo dugu topo lehenengo, eta armari handi eta landuak dituzten etxe mordoxka batekin Kale Nagusian aurrera egin ahala, berriz ere San Joan plazara hurbilduz.

Agurainen, olbeak

Olbeak. Oholbeak. Izen hori hartzen dute Agurainen etxeen arkupeek. Euskal Telebistan eguraldiaren iragarpena ikusi ohi duenak ongi daki neguak hotzak izaten direla hemen, baina Ekik ere ederki berotzen gaituela udan. Azoka egiteko eraiki zituzten aguraindarrek lehenengo olbeak.



ARGAZKILARIA

Ezkerreko argazkian, olbeak plazan. Eskuman Erregearen Ataria kalea, gure ibilbidearen abiapuntua. Kale amaieran San Juan eliza ikus daiteke.

Olbea bezala, asko dira Agurainen euskaraz gorde diren hitzak. Sarda eta eskuara erabiltzen dituzte esaterako, aguraindar erdaldunenek ere, belarretara joateko.

Herriko jira bukatzeaz, kaleetan barrena ibili den bisitaria jabetuko zen jada aguraindarron euskaraz bizitzeko gogoarekin. Agurain Euskal Herriko beste herriren batekin alderatu beharrean duela 50 urteko Agurainekin alderatu duenak, argi ikusiko du zenbat egin duen aurrera gure hizkuntzak gure herrian. XX. mendea bertako euskal hiztunik gabe hasi zuen herriak, eta gaur egun %50 euskalduna edo ia euskalduna da.

Arrautza bat zapata artean

Olbean gora Zapata kalean abiatu eta segituan egingo dugu topo eraikin gorrixka dotorearekin. Ez dago Aguraingo Udaletxea arrautza bat bezala baina hobeto deskribatzerik. Barruan XIII. mendeko gorringoa duen arrautza-azala da udaletxea. San Martingo eliza zaharra babes-ten duen eskola.

Eliza horren atarian ospatu ziren Hagurahin zaharreko lehen bilerak, eta bere hormen kontra eraiki kartzela, biltegi eta bestelakoak, XIX. mendean eliza eta inguruko gehigarri guztiak teilatu bakarrarekin estali ziren arte. Duela urte gutxi batzuk

eraberritua, merezi du benetan bisita egitea, eta horretarako nahikoa da Kale Nagusian dagoen turismo bulegoan aukeren berri galdetzea.

Bisita bukatzeko modurik onena? Harrizko herria ezagutu eta gero, aguraindarrekin nahastu eta tragoxka bat hartzea.

Ordura arte! ■



Bisitatu
Ihesi.com,
aisialdirako
webgune parte-
hartzailea.



Xapoa

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fernán Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Fukushima saiakera eremu bilakatu da

FUKUSHIMAKO ZENTRAL NUKLEARRA kudeatzen duen TEPCO konpainia-
ren arabera, itsasora isuritako ur erradioaktiboak ez du inguruko itsasertza
kutsatu; horren froga modura aldika-aldika itsasoan, hiru eta hamabost
kilometrora, egindako kontrolak aipatzen ditu. TEPCOk hori esan zuen
egun berean beste ikerketa bat argitaratu zen; haren arabera itsasertzetik
kilometro batera inoizko zesio kontzentrazioarik handiena neurtu da.

Aipatutakoa Fukushiman gertatzen ari denaren adibide bat baino ez da.
Esaten denak ez du funts nahikorik, edota epe laburrean aldatzen da.



JOHN POWERS

Langileak Fukushiman.

Beste adibide bat: TEPCOren arabera orain 350.000 ur tona dago, nola-
bait pilatuta, zentralaren azpian, eta 2016an 800.000 izango dira. Ur hori
itsasora ez isurtzeko, iaz murru erraldoi bat eraikitzen hasi ziren itsasertze-
ko lur azpian, eta datorren urtean zehar amaiturik izatea espero dute. Gai-
nera, metatutako urak dituen substantzia erradiaktibo gehienak garbitzeko
sistema prest egongo omen da jada.

Baina TEPCOk emandako informazio horren atzean beste irakurketa
hau ere egin daiteke: 800.000 tona eurek hozte-sistemetan erabilitako ur
kantitatea da, baina zenbat da euriteen eraginez gehitutakoa? Itsasora ur
erradioaktiboa ez isurtzeko murrak, hasiera batean, eragotzi dezake ura
itsasoratzea, baina badago hori ziurtatzerik, epe luzeagoan, horrelako
espazio handietan? Zein kosturekin? Uraren garbiketa-sistemak 63 ele-
mentuetatik 62 garbitzeko helburua du, baina oraingoz hiru unitateetatik
batek baino ez du funtzionatzen, matxurak bata bestearen atzetik gerta-
tzen dira eta.

Gai honek, bere txarrean bederen, badu alderdi on bat:
Fukushima saiakera laborategia den neurrian urte batzuk barru
gizakiak hobeto ezagutuko du erradiaktibitatea kontrolatzeko
teknologia. Bitartean... ■



Puskatu gabe tolestu daitezkeen zeramika lanak

Denok dakigu zeramika lanak ez direla batere malguak, eta presiopean puskatu egiten direla. Nazioarteko ikerlari talde batek, lehen aldiz, zeramika ale malguak ekoitzi ditu. Hori gutxi balitz, hasierako itxura “gogoratzen” dute, eta gai dira hura berreskuratzeko.

ttiki.com/56263

(Gaztelaniaz)

Intsektuen sexu-jarduna eguraldia aurreikusteko tresna izan daiteke

Ohituraz, animalien portaera zer eguraldi egingo duen igartzeko erabili izan da, baina oinarri zientifikorik gabe. Berriki, ordea, Sao Pauloko eta Western Ontarioko unibertsitateetako entomologoez, elkarrekin egindako ikerketa batean, ikusi dute egingo duen eguraldiak eragina duela hiru espezieetako intsektuen sexu-jardueran.

ttiki.com/56264

(Euskaraz)

Minbiziaren kostua Europan

The Lancet Oncology aldizkarian argitara eman den artikulua batean, zientzialari talde britainiar batek dio 2009an europar bakoitzarentzat 102 euroko kostua izan zuela minbiziak. Guztira, 126.000 milioi euro. Hala ere bihotzeko gaitzen kostuaren azpitik omen dago.

ttiki.com/56265

(Frantsesez)

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Galtsua ala galtzua

ARTABURUAK BILDU eta artasoroaren emana amaitu dela uste duena, ustel dabil. Artasoroa, berez, errenta etekintsua, mozkin aberatsa duen ekosistema adimentsua da. Adimentsua, kulturala, geuk sortua delako. Hona etekin katea: hasteko artoa-babarruna-kuia (*Zea mays-Phaseolus vulgaris-Cucurbita pepo*) elkartzea. Babarrunak, *Fabaceae* familiako lekaduna izanik, aireko nitrogenoa lurrari lotzen dio. Nitrogeno oparia adeitsu hartuta, artoa ederki haziko da, eta babarrunari eskuinez aurrera aihentzeko barda dotorea eskainiko dio. Babarrun lekak arto ostroen itzaletan helduko dira; hala, azal fineko aleak ekarriko dituzte. Eguzki galdetan heltzen den lekak azal zakarreko aleak izaten ditu... Arto-babarrun bikoteak libre uzten dituen soroko zirrikitueta kuia hedatuko da, eta negurako erreserba ederreko buruak onduko. Baina mozkinen katea ez da motza. Kate-begi ugari du: kuiak, kuiak soilik; babarrunak aleaz gain leka, azien-daren gutizia; artoak, ordea, lorea, ostroa, zuztarra, artalea, lokotxa eta zurikina ditu. Ez zuen alferrik heredatu artoa izena! Artoa, greko-

tik ekarritako izena, “oinarrizko jaki”.

Artasoroa garbi geratzen da zuztarrak biltzean. Artazuztarra edo arto lastoa edo mailastoa. Gose sasoietan jo eta zanpatu eta aziendaren jatenetarako. Garai oparoetan azienda beraren azpietarako. Hura biltzen denerako nabarmen etorria izango da abuztuaren amaiera aldera erein den arbia (*Brassica rapa* subsp. *rapa*), bestela soil-soila geratuko litzateke saila.

Ez lehenago erein arbia, bestela, Bedaioko Larrañetako Mariak esaten zuen eran, zanbroak joko du. Baina, erroak utzirik adarrei lotu beharrean, sustraira buelta nadin, arbiaren zanbroarena beste baterako utziko dut. Utziko dizut...

Artasoroan lastoa tiraka ateratzen denez, ez da haren arrastorik geratzen. Laboreen soroetan, baina, lastoa ebakita ekartzen da larrainera. Eta ebakitakoaren ipurdia han geratzen da, galtsua. Guretzako galtsua, Sarasolak galtzu



ROLAND DARRÉ-CC BY SA

Ardiak, lurraldea ongarritzeko makina.

badio ere... Artaldeak ondo aprobetxatuko du, negua igarotzera beterrietako zelaietara etorritakoa... Behetik gora eta goitik behera darama artaldeak artzaina. Eta bidean mesede ikaragarriak. Ardi batek egunean bost kilo kaka hedatzen ditu. 5.000 gramo kaka horietan txegositako 5.000 hazi doaz, ernetzeko pronto. Hara-hona dabilen artalde bat, lurraldea ongarritu eta ereiteko makina bat da, kimika urrunduz den-dena ematen digun makina on-ona. Gure amonak esango lukeen bezala, bedeinkazioa. ■



Azala behar du!

Gonbidapen bat medio Tenerifen izan berria naiz. Baita txundituta bueltatu ere. Ez nuen berehalakoan usteko, halako baso eta paisaiarik topatuko nituenik. Teide sumendi erraldoiak laino jende berezi bat eransten dio uharteari eta bertako pinu endemikoak (*Pinus canariensis*) pinudi ikusgarriak osatu ditu.

Sumendiaren magaleko pinua da. Sumendiak eta biek elkarrekin egin dute aurrera. Sutearekin elkarbizitzen ikasi duen pinua da. Hasteko izugarritzako azal lodiz jantzen da, suari eta haren beroari aurre egiteko. Eta errez gero, beste pinuek ez duten ernaberritzeko gaitasuna du. Erretako adarrak berriz orritz jantziz edo altsuma berriak emanez. ■

Ogi egin berria eta atomoak

ABDERA (TRAZIA), K.A. C. 460. Demokrito Antzinako Greziako filosofoa jaio zen. Besteak beste, atomismoaren teoriaren sortzailea izan zen, Leuziporekin batera; materia gai zatiezinez osatuta dagoela uste zuten.

Elezaharraren arabera, Demokritori goiz batez iritsi zitzaion inspirazioa. Ia egunero bezala ogi egin berria usaindu zuen, baina goiz hartan, jateko gogoaz gain, jakin-mina ere piztu zion usainak filosofoari. Nolatan antzematen zuen bere sudurrak usain hura, ogia urrun egonda, sudurraren eta ogiaren artean loturarik ez bazegoen, bien artean airea besterik ez bazegoen? Galdera horretatik abiatuta Demokritok ondorioztatu zuen partikula ñimiño batzuk existitzen zirela, airean flotatuz ogi zati txiki ikusezinak sudurreraino iristen zirela eta horregatik har zezakeela ogi egin berriaren usaina. Hau da, mundua elementu ñimiño, zatiezin, suntsiezin eta eterno osatuta zegoen, eta horiek bat egitean sortzen ziren unibertsoko gauza guztiak. *Atomo* –zatiezina, grekoz– esan zien.

Beste hainbat filosofo greziar bezala, Demokrito arrazoibide logikoan oinarritzen zen teoriak azaltzeko, eta ez zuen esperimenterik erabiltzen postulatuak berresteko. Nahita ere, mende asko falta ziren oraindik atomoen teoria enpirikoki egiaztatzen lagunduko zuen teknologia garatzeko. Horregatik, teoria jaio berriak hutsune asko zituen. Esaterako, Demokritok ez zuen uste naturaren prozesuetan inolako “indarririk” edo “espiriturik” dagoenik; ez zuen energia kontuan hartu, beraz. Errealitate guztia badiren gauzek (atomoek) eta ez direnek (hutsak) osatzen dute. Eta zentzumenen bidez antzematen den guztia atomoak dira; adibidez, haren ustez, Ilargia ikus daiteke satelitearen atomoak gure begietara iristen direlako.

Eta, jakina, oinarritzko partikulei ipini zien izenean ere ez zuen asmatu. 1830 inguruan, Michael Faraday izan zen atomoen zatiezintasuna zalantzan jartzen lehena. Mende horren amaieran, Joseph J. Thomsonek elektroiak aurkitu zituen izpi katodikoak aztertuz, eta



CENTRAAL MUSEUM UTRECHT

Demokritori “barre egiten duen filosofoa” ere esaten zaio, eta Johannes Moreelse Herbehereetako margolari barrokoak hala irudikatu zuen 1630eko olio honetan. Bizitzaren alde komikoaren garrantzia nabarmentzeaz gain, Demokritok hainbat ekarpen egin zituen; atomismoaren teoria garatzen lehena izan zen, esaterako.


azkenik, 1911n, Ernest Rutherfordek atomoaren nukleoa aurkitu zuen. Baina izenez zatiezina zena partikula azpiatomikoetan zatituta ere, atomoek Demokritok ipinitako izena atxiki dute, eta askok filosofo greziarra “zientzia modernoaren aitatzat” jo izan dute bere ekarpenak medio.

Duela urtebete Bretagne-Sud unibertsitateko lantalde batek *The Journal of Social Psychology* aldizkarian argitaratutako ikerlan baten arabera, ogi egin berriaren usainak ezezagunekin adeitasun handiagoz jokatzera bultzatzen gaitu. Alabaina, ikerlanak ez du frogatu usain horrek teoria atomikoa ulertzen laguntzen duenik. ■



Arrastoak

Sydneyko Operak zabaldutako eta itxitako ateak



40 URTE bete berri dira Sydneyko Opera inauguratu zutenetik. Jørn Utzon (1918-2008) arkitekto daniarraren proiektua berritzailea izan zen zentzu askotan. Forma geometriko konplexudun lanak eraikitze bidea zabaltzeko, forma horiek eraikitze-ko analisi konputazionala erabiltzen lehenetarikoa izan baitzen. Aurrez

fabrikatutako elementuak itsasteko araldite izeneko substantzia erabiltzen ere aitzindara izan zen. Baina eraikina-aren aurrekontua %1.400 handitu zenean, Utzon kaleratu zuten. Arkitektoa hil baino lehen operaren patronatuarekin adiskidetu arren, Utzonek ez zuen halako proiektu handi batean berriro parte hartu. ■

ETA-KO PRESO OHIEN BIRGIZARTERATZEA

Espetxealdiaren osteko bizitza

“Preso egon denaren gogoia gartzelara itzultzen da beti. Kalean juje, fiskal eta abokatuekin gurutzatzen da, eta poliziek, identifikatu ez arren, beste inori baino gehiago begiratzen diote, bere pausua sosegatua ez delako edo sosegatuegia delako. Bere bihotz barruan betirako kondenatu bat dago”, idatzi zuen Joseba Sarrionandiak *Hau da ene ondasun guzia* poema bilduman. Urte asko preso igaro ostean jendartera egokitzea ez da uste bezain erraza izaten.

| IRATI SARASUA ARABAOLAZA |

Argazkiak: Dani Blanco

“GIZARTERA BERRIRO ere egokitzea urtebete inguruan lortzen dute denbora asko espetxean pasatu duten preso ohiek, baina badaude inoiz lortzen ez dutenak ere, bere buruaz beste egin duenik ere bada”, adierazi du Krispin Batiz psikiatrak. Begoña Uzkudun errezildarra, Juanra Rojo irundarra eta Jon Agirre aramaioarra jada egokituta dauden preso ohiak dira, edo hori lortzeko bidean dira bederen. Hala ere, espetxeko ohiturak aldatu eta horiei aurre egiteak lana eskatzen diela aitortu dute. “Jendea aztertzen duzu kalean, kartzelan hori egiten ikasten duzulako. Espetxea mundu txiki bat bezalakoa da, eta aztertzea ez da hain konplikatua, kalean, aldiz, gehiegizkoa da”, adierazi du 21 urte espetxean pasatu ostean martxoan atera zen Juanra Rojok.

Ez dute Estatuaren aldetik oztopo handirik izan. Jarraipenak bai, maiz. Uzkudunek, esaterako, lanera bidean sentitzen du hori gehien: “Goizeko ordu txikitan joaten naiz eta askotan auto bat izaten dut atzean, presionatu egin nahi gaituzte”. Batiz psikiatrak ezagutu dituen kasu askotan pasatu da hori: “Gainera, jarraika

Begoña Uzkudunek 17 urte egin zituen kartzelan eta zazpi daramatza kalean. Bikotekideak lagundu zion kartzelako ohiturak aldatzen.





Juanra Rojo martxoan irten zen kalera 21 urte preso egon ondoren. Hendaiako hondartzan oinekin itsasoa ukitzea izan zen egin zuen lehen gauza. Barruan geratutakoez oroitu zen orduan.

tan, ez duzu sinesten, begietara begiratzen diozu funtzionarioari esandakoa berresteko esperantzaz”. Bueltan erdia eman zuenean kideak paseatzen ari zirela ikusi zuen, ez zuten elkarriketa entzun, euren gaitasuna joan eta bazihoala esan zuten. Emozioz betetako unea izan zela nabarmendu du, elkar besarkatu zuten eta agurtzea ere zaila izan zela ziurtatu du. Atea pasatu, sinatu eta irten zen. “Sentsazio ezberdina zen, airea ere zen desberdina”.

Jon Agirrek sentsazio bera izan zuen irtetean, espetxeak bat-batean ez zuela barruan nahi, “ahal bezain laster” bota nahi zuela. *Parot doktrina* ezarri zioten. 30 urteren ostean esan zioten hurrengo goizean irtengo zela. Ez zioten gosarik eman eta alde egiteko esan zioten.

Denentzat da “zirrargarria” lehenengo egun hori, urteetan zehar itxarondako eguna. Uzkudunentzat ere egun “ederra” izan zen. Desio zuena anaia bisitatzea zen; istripu baten ondorioz ibili ezinik geratu zen, eta lehenengo lana hori izan zen, bera ikustea: “Gogo izugarria nuen. Amesten duzun eguna da. Jende asko besarkatzen duzu, baina ez dakizu nor den. Hurrengo egunean aurpegiere ere ez zara gogoratzen”.

Baina askatasuna “gazi gozoa” dela nabarmendu dute, hasierako une horietan espetxean daudenekin gogoratzen direlako. “Kanpoan zaude, baina hain duzu gertu barruan bizitakoa... Bi sentsazio nahasten dira”, azaldu du Uzkudunek.

Hasieran babesa ugari, gero ordea gutxiago

Lehenengo egunak maitasunez oroitzen badituzte ere egoera nolabait “artifiziala” dela nabarmendu du Batiz psikiatrak, eta egun horien ostean egoera zaildu egiten dela. “Lehen egunen ostean oso gaizki pasatzen dute presoek, gauza atsegina dela pentsatzen dute herritarrek, baina beraientzako oso gogorra izaten da. Hortik jaistea asko kostatzen

dituztela sentitzea da polizien asmoa, nahita egiten dute”. Preso ohiek “mamuak” leku guztietan ikusten dituztela uste du, eta askotan badaudela ere bai. Batziz garrantzitsua iruditzen zaio espetxetik irten aurretik prestatzen hastea. Duela urte batzuk presoekin egoteko aukera izaten zuten psikiatrek, eta prozesu hori lantzen zuten, jarraipena egiten zieten, baina egun ez da hain erraza izaten, presondegiak mugak jartzen baititu. “Garai hartako presoak errazago egokitzen ziren geroagokoak baino”. Horregatik, psikiatrekin egon ez arren, bakoitzak lanketa hori egin beharko lukeela uste du berak.

Hiru preso ohiek oso ongi oroitzen dute espetxetik irten ziren eguna. “Desio duzun eguna da”, dio Rojok. Hiru hilabete pasatu zituzten epaileek Rojori *Parot doktrina* ezarri ala ez erabakitzen. Azkenean martxoaren 8an irten zen kalera. Eguerdiko 12:00etan patioan zegoen eta fun-

tzionario batek beregana joateko esan zion. Presoak pentsatu zuen modulu aldaketaren bat-edo jakinarazteko zela. Eta honela esan zion naturaltasun osoz: “Rojo zure askatasuna heldu da, igo eta gauzak jaso behar

“Lehen egunen ostean oso gaizki pasatzen dute presoek, gauza atsegina dela pentsatzen dute herritarrek, baina beraientzako oso gogorra da”

Krispin Batiz, psikiatra

dituzu berehala”. Beretzat izugarria izan zela oroitzen du. “Hamarkadak daramatzazu horren zain eta hamar minututan bizitza erabat aldatzen zaizu. Zurbil geratzen zara une horre-

zaie”. Hasierako hilabeteetan babesa sentitu dezaketela dio, baina ez direla harreman sendoak. Hilabeteak pasatu ostean arazoak hasten direla ziurtatu du. Eta horri aurre egiteko garrantzitsua deritzo inguruan senide eta lagunengan babesa izatea.

Hiru preso ohiek ere inguruko laguntza beharrezkoa dela uste dute, eta bat datoz psikiatrarren iritziarekin: hasieran, espetxetik irtetea jende asko hurbiltzen bazaie ere, gerora hutsunea sentitzen dute, herritarrek eguneroko bizitzari ekiten diotelako eta eurak ez dakitelako bizitza horretan nola murgildu. Lagunei dei-

eskatu, eta atea irekita izango zuela. Harremana poliki-poliki garatzen joan direla dio, ahalegin asko egin dituztela eta egiten jarraituko dutela: “Pentsatzen dut ‘etorriko da eta etortzen denean hemen izango nau’. Beti izan dut bera buruan. Orain gertu bizi naiz”.

Harreman hori da espetxeko egonaldiaren ostean Uzkuduni gehien inporta izan zaiona. Baina hasierako hilabeteetan bikotearen beharra eta garrantzia nolakoa izan zen ere azaldu du. “Nire bas-toia zen, nire segurua”. Etxetik irtetea nora joan behar zuen pentsatzen zuen Uzkudunek eta zuzenean hara joaten zen, ingurukoei erreparatu gabe, “patioan bezala”. Bikoteki-deak lagundu zion ohitura horiek aldatzen.

Etxean lo egitea ere hasieran zaila dela diote. Ohera sartu eta pasilloko iluntasunak segurtasun falta sortzen die, eta Rojok, esate baterako, atea giltzarekin itxi behar izaten zuen lasai lo egiteko. Ziegan bezala. “Tortura

aspaldi gainditu dut. Baina egia da une batzuk daudela zerbait egitean oroitzapenak ekartzen dizkizuna eta segurtasun falta sentitzen duzu. Nire atxiloketa gogorra izan zen, eta etxean lo egiteak hori ekartzen dit gogora, nahi gabe ere”. Hasieran bizipen horiek izatea oso normala dela dio Batizek: “Gehienek izaten dituzte lo egiteko arazoak. Horrez gain, kaleko abiadura ere ikaragarria iruditzen zaie, harrigarria da nola bizi garen eurentzat”.

Rojok, kartzelatik irten eta gutxira hilabete pasatu zuen Britainian. Iheslaria izan zenean bizi izandako lurraldean. Bikotetarekin joan zen. Batizi garrantzitsua iruditzen zaio espetxetik atera ostean denbora batez senideren batekin kanpora joan eta gero bizitza normalari ekitea. Zuzenean lanean hasi edo bizitza normalari heltzea ez da onena izaten psikiatrarren arabera. Baina presoek desio izan duten guztia egin nahi izaten dute irten bezain laster.

“Lehen egunean jende asko besarkatzen duzu, baina ez dakizu nor den. Hurrengo egunean aurpegiez ere ez zara gogoratzen”

Begoña Uzkudun

tzea, esaterako, zaila egiten zaie, euren ohiturak ezagutzen ez dituztelako. Gurasoen edo senideen etxean ere askotan arrotzak sentitzen dira. Eta berriz hasi behar dira harremanak egiten.

Begoña Uzkudunek zazpi urte daramatza kalean, kartzelan 17 urte eta erdi egin ostean. Atxilotu zutenean bi urteko alaba zuen, irten zenean 19 urteko gaztea zena, eta salto hori ez da pentsa litekeen bezain samurra. Etxean ezezaguna zen alabarentzako: “Pentsa zein gaizki pasa zuen gaixoak. Ihintzak nire amari esan zion ea zer egin behar zuen: ‘Amarekin joan behar dut?’, eta nire amak erantzun zion: ‘Zu non sentitzen zara egokien, lasaien?’. Berekin gustura zegoela esan zion, baina ez zekiela nirekin etorri beharko lukeen. ‘Zu hemen gustura sentitzen bazara amak badaki eta hemen egon lasai’, esan zion amonak. Eta orduan lasai geratu zen eta erabakia hartu zuen”. Argi izan zuen hasieratik alabari ezin ziola berekin joatea



AQUARIUM

Carlos Blasco de Imaz Plaza, 1
20003 Donostia (Gipuzkoa)

Tel: 943 44 00 99

aquariumss@aquariumss.com
www.aquariumss.com



“Erronka honek gizarte osoarena izan behar du”

“Preso ohiak garelako konturatu ginen presoak kartzelatik irtetea edo erbesteratuak itzultzean, askotan, senide eta lagunen babesa besterik ez zutela. Beste batzuk ezta hori ere”, dago idatzita Harrera Elkartean webgunean.

Zergatik sortu zenuten Harrera? Zein behar ikusi zenuten?

Hastapenetan preso ohiak egindako hausnarketa baten ondorio da. Espetxealdia pasatzen dugu baina itzuli egiten gara, bakoitza bere herrira itzultzen da eta testuinguru horretan normalean gizarte berri horretara egokitzea konplikatu da. Gizartea aldatu egin da, eta presoaren egokitze prozesuan zailtasunak agerian geratzen dira.

Preso asko izan dira Euskal Herrian, 13.000 inguru azken 50 urteetan. Gehiengo batek lehenago edo beranduago egokitzea lortzen du, baina konturatu ginen batzuk ez direla behar bezala egokitzen. Horiei begira egin zen hausnarketa. Itzuli ezinik ibiltzen denari gure elkartasuna, gure laguntza nola bideratu pentsatzen da.

Zein egoeratan izaten dira espetxetik irtetea?

Pertsona bat mundu bat da. Batzuk ikasketa tituluarekin irteten dira, gehiengo ez. Beraz, atxilotuak izan ziren unean zuten formazio bera dute irtetea. Hasieran bizi pozarekin irteten dira, dena xurgatzen saiatzen dira, eta hilabeteak azkar pasatzen dira. Baina jendea ohitzen denean zu ikustean, bakoitza bere lekura itzultzen da eta preso ohiak hutsune nabaria sentitzen du.

Zehazki zein esparrutan laguntzen diozue preso ohiari?

Norbanakoaren egoeraren araberakoa izaten da. Preso ohiak umezurtza da gizarte berriaren aurrean. Elkartean ezaugarri

nagusietako bat asistentziala da. Ez gara eztabaida politikoa sartzen, horretarako badira herri honetan tresna ugari, dituzten beharrei erantzuten diegu soilik. Arlo administratibo eta juridikoan laguntzen diegu, osasunari dagokionez izaten dituzten arazoei irtenbidea bilatzen, etxearen premia daukaten preso ohiak bizileku bat eskaintzen diegu, eta formazioan eta lan munduan ere laguntza eskaintzen diegu. Espetxean lagunen edo senideen menpe egoten dira, eta kanpoan beren kabuz bizi nahi izaten dute, bestela frustrazioa eragiten die.

Zenbat pertsona daude laguntza beharrean?

Azken bi urteetan 200etik gora izan dira kaleratuak, %40a behin behineko egoeran eta epaiketaren zain, horrek suposatzen duen guztiarekin. Alegia, berriro espetxeratu ditza-kete. Bestalde, hauetatik 65 lagun ditugu lan beharrean, ekonomikoki egoera zailan. Laster 197/2006 doktrina ezarri zitzaizkion kideak kaleratuko dituzte. Alegia, 68 lagun inguru soslai jakin bereziarekin: 25 urtetik gorako espetxealdia burututa eta 50-55 urtetik gorakoak. Lan munduan integratzeko zailtasun handiak izango dituzte. Azkenik, datozen 4-5 urtetan 25-30 kide jubilatzeke adinean izango dira eta 316 euro inguru baino ez dituzte kobratuko. Eta horrekin bizi-raun behar.

Herritarrek nola lagundu dezakete?

Erronka honek gizarte osoarena izan behar du eta denek lagundu behar dugu aurrera egiten. Guk eginkizun argia dugu eta Harrerako bazkide izatea ekarpen handia litzateke jada, egoera ekonomiko zailak bideratzeko eta arintzeko erabiltzen da bazkideen ekarpena. Nahi duenak, gure webgunean aurkituko du egiten dugun lanaren informazio zabalak.

Egoera berriarekin “arduratsu”

ETako kide ohiak izateagatik babestuenak eta baztertuak izan dira. Inguruaren araberakoa izaten omen da hori. Leku batzuetan inguruan duten jendea haiez latsatzen dela sumatu dute. Lana bilatzeko ere oztopoak izaten dituzte. Hau da, zigorraren zama gainea daramatela sentitzen dute, zigorra bete ostean ere.

Egungo egoera politikoak ilusioa eragiten die: “Garai berri batean gaude, eta pauso bakoitza kontu handiz eta ongi eman behar dugu, une zirrargarria da, eta kanpoan bizitzeak beste perspektiba bat ematen ditu”, dio Rojok. Atzera begiratzeko ETak duela bi urte hartutako erabakia ekarri du gogora. Rojo espetxean zegoen une horretan:

“Momentu pertsonalak oroitzen dituzu, bizi izandakoa. Zure burutik pasatzen dira irudi zehatzak. Laburpen bat. Zuk eta zure aurreko belaunaldiak bizi izandakoa. Puntu horretara heltzeko bizi izan den sufrimendu guztia”. Atzera begirata bizitza berreskuratu duela sentitzen du irundarrak eta intentsitatez bizitzen ari da ahal duen oro, ez omen du inoiz pentsatu galdu duen

“Nire atxiloketa gogorra izan zen, eta etxean lo egiteak hori ekartzen dit gogora, nahi gabe ere”


Juanra Rojo

horretan: “Militantzian sartzen zaren lehenengo minututik gainetik kendu duzulako”.

2011ko urriaren 20ko gau hartan ez zuen begirik jo, etorkizunean gertatuko zenaren zirrarez, gertatutakoak pentsatzen. “Gauza asko ezezagunak dira eta zalantza sortzen dizute kartzelan. Baina herri honek urteetan izan duen esperientzia pentsatzen duzu era berean”.

Hurrengo egunean ziega ireki eta kideekin hitz egiteko gogoia sentitu zuen. Negar egin zuten. “Senideei deitzeko beharra sentitu nuen, kalean jendeak zer pentsatu eta sentitzen zuen...”.

Agirrek eta beste preso askok bazekiten ETak adierazpena egingo zuela. “Gu langileak



Jon Agirrerri Parot
doktrina ezarri zioten
eta 30 urte egin ditu
kartzelan. Gizartea
erabat aldaturik aurkitu
du eta horrek asko
eragin dio.

egun bakoitzari “zukua atera” nahi diote, baina gizartea erabat aldatu da eta Agirrerri, adibidez, horrek asko eragin dio: “Bi urte eta erdi daramatzat kalean eta sekulakoak galdu dira denbora honetan. Txarrera, gainera”, kritikatu du. Gazteen jarrerak haserretzen du gehien, indibidualistak direla dio: “Guk bizitza osoa pasatu dugu lanean, eta 20 urteko gazteak auto izugarriekin ikusten ditut. Herri mugimenduei dirua emateko ez dute gazteek,

baina kontsumitzeko bai”.

ginen, buruek erabaki hori hartu zutela jakin genuen eta listo. Merezi izan duen pentsatu izan dut askotan. Haserrea bezalako zerbait ere sentitu nuen orduan”. Baina “errealitatea gogorra” izan arren, onartu egin behar dela dio eta erakundeak erabaki hori hartu bazuen “onena” izango zela.

Biktimizez ere hitz egin du Uzkudunek. Nabarmendu du alde desberdinetan daudela eta denek behar dutela “zor zaien errekonozimendua”. “Alde jakinekoei askotan egin izan zaie gorazarre, biktimak soilik ETak eragindakoak direla irudikatuz” dio preso ohiak. Bere ustez PPren Gobernuaren “tresna” bilakatu dira ordea: “Nik ulertzen dut biktimizek senti lezaketena mina, baina minaren adierazpena baino, sigla jakin batzuek gorrotoaren erabilpena indartzen dute”.

Espetxean urteak igaro ostean egoera berrira egokitzeako konbentzimenduarekin irteeta beharrezkotzat jo dute elkarriketatuek, baita preso ohiak elkartu eta esperientziak partekatzea ere. Ilusioz bizi dute une bakoitza,

Euskal Herriak “herri gisa” izan duen jarreraren sinetsi eta etorkizuna kalean bizitzeko gogotsu daude. Hala ere, barruan geratutako presoez uneoro akordatzaren dira eta badakite haiek irten artean ez direla lasai egongo. Rojo Hendaiako hondartzara joan zen espetxea utzi eta denbora gutxira, hanketan hondarra eta ura sentitzea izugarria egin ei zitzaion: “Askotan espetxean begiak itxi eta imajinatu egiten nuen, ia usaintzeraino heltzen nintzen. Olatua hautsi eta hanken azpian hondarra urak nola eramaten duen sentitu nahi nuen. Askatasunarekin lotzen duzu. Negargura izan nuen, hunkigarria da. Hemen nago pentsatu nuen, atera naiz, sistema gainditu dut, irabazle sentitu nintzen. Baina itsasoaren sakontasunera begiratzen nuen neurrian barruan zeudenez oroitu nintzen eta pentsatu nuen horiek guztiak irten arte gure borrokak jarraituko duela”. ■



**VITORIA
GASTEIZ**
green capital

*Gasteizen euskarazko
haiek ez galdu*

GOZATU EUSKARAZ LIBURUTEGIETAN!

Sarrera: 1€

ABETXUKU

Kantari-On

Azaroak 30, 12:00

2-4 urte (heldu batekin)

ARRIAGA

Entzun, entzun, txikia

Iñaki Carretero ipuin kontalaria

Azaroak 25, 18:00, 3-6 urte

IBAIONDO

Amatxo, zergatik?

SIC ipuin kontalaria

Azaroak 13, 18:00

2-3 urte (heldu batekin)

IPARRALDE

Kantari-On

Azaroak 30, 12:00

2-4 urte (heldu batekin)

JUDIMENDI

Bertsolharitza

Ibai Esoain kontu kontalaria

Azaroak 13, 18:00

5-11 urte

LAKUA

Badaude beste ipuin batzuk

Txabi Arnal ipuin kontalaria

Azaroak 13, 18:00, 4-7 urte

PILAR

Sorgina al da hodei hori?

Teatropezao txotxongiloak

Azaroak 13, 18:30, 3-9 urte

GAZTE ETA HELDUENTZAKO JARDUERAK

IPARRALDE

Emakumeen bertsoak

Uxue Alberdi eta Oihane Perea

Azaroak 25, 19:00

Gonbit-txartela

BADU, BADA erakusketa

Bisita gidatuak, lantegiak, aurkezpenak

hitzaldiak, mahainguruak, solasaldiak...

Ignacio Aldecoa kultur etxea

www.badubada.com

EUSKARA IKASTEKO DIRU-LAGUNTZAK

2013ko uztailetik 2014ko ekainera euskara ikasi eta honako talde baten kide izanez gero, udal diru-laguntzez baliatzeko aukera:

- Gurasoak
- Aisialdiko begiraleak
- Kirol begirale edo entrenatzaileak
- Aisialdi begirale edo kirol entrenatzaile izateko ikastaroetako ikasleak
- Merkataritza arloko langileak (Merkataritza eta Industria Ganberaren bidez)
- Herritarak (diru-laguntza hauetarako ezarritako mugak gainditu ezean)

Maite duzun hura, euskaraz!



«Hizkuntza bat baino gehiago ikasteko eginak gaude genetikoki»

Immigranteek eta beren seme-alabek nola ikasten duten herrialde arrotzeko hizkuntza aztertu izan du Jurgen M. Meiselek (Heilbronn, Alemania, 1944). Hanburgoko eta Calgaryko unibertsitateetako irakasleak urteak daramatza etorkinen ikasketa prozesuak aztertzen. Bilbon izan zen irailean, Euskal Herriko Unibertsitatearen Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco Katedrak egindako biltzarrean.

| MIEL A. ELUSTONDO |

Argazkiak: Zaldi Ero

LINGUISTIKA Erromanikoa-
ren sailean ari zen lanean.
Frantsesa, espainola eta por-
tugesa ikertzen zituen, eta
italiar, espainiar eta portugal-
dar jatorriko etorkinen hiz-
kuntza aztertzea bururatu
zitzaion. “Garai hartan asko
hitz egiten zen immigranteen
artean sortua omen zen hiz-
kuntza bati buruz, ‘aleman
pidgina’ zioten. ‘Iker deza-
gun horixe!’, esan nuen”.

Eta?

Ikasi nuen lehenengo-lehe-
nengo gauza, han ez zela
pidginik! Immigranteek ale-
mana ikasten zuten. Ez per-
fektu, ez baitzuten denbora-
rik hizkuntza ikastaroetara
joateko, lan egiten baitzuten
goizetik arrats, baina ikasten
zuten. Espainiar jatorriko
lagunak nituen, langile ziren
Alemanian, eta bazituzten
elkarteak ere, “Alemaniako espai-
niar langileen kultur zirkuluak”.
CCOOen ekimena zen, artean
faxismo garaia Espainian. Oso
jende interesgarria. Esate baterako,
banuen lagun bat, Andaluziakoa,



“Ez dakigu zergatik duen pertsona batek hizkuntza ikasteko erraztasuna, eta beste batek aldiz ez”.

bizitzan eskolan lau urte baino egon
ez zena, eta aldiz, oso poesia ona
idazten zuena.

Kontua da lan hura egin genuela,
hau da, italiar, espainiar eta portu-
galdar jatorriko ikasleen ikasbide

naturala aztertu genuen 70eko eta
80ko hamarkadetan.

“Ikasbide naturala”...

Bai, halaxe esaten zen garai hartan,
“naturala”, ikastarorik egin gabeko

prozesua. Jakin genuen, esaterako, beren ikasketa hartan antzeko aroak igarotzen zituztela, nahiz eta egoerak, eta pertsonak berak, oso ezberdinak izan. Horrek zer edo zer esan nahi zuen, hau da, garunak baduela hizkuntzak ikasteko gaitasuna –haurrek ere badutena, bistan denez–, baina heldu ahala, kamustu egiten zaigula delako ahalmen edo gaitasun horren atal bat. Halarik ere, beste atal batek ez dio funtzionatzeari uzten eta eskerrak horri helduaroan ere hizkuntzak ikasteko gai da pertsona, hizkuntzari buruzko gogoeta sakonak egin gabe ere.

Ikasi bai, baina ez modu perfektuan, esan duzunez.

Inoiz ez dira natibo izango. Hor dira zuzentasuna, egokitasuna, erraztasuna... Hor dira entonazioa, erritmoa, kadentzia... Nik, hala ere, adinaren garrantziaz jardun dut batez ere nire ikerketan. Medikuntza eskolako neurologoekin batera ere jardun dut lanean. Garunaren irudigintza landu dugu, gizaki guztiok hizkuntzak ikasteko dugun gaitasuna galtzea zeri zor zaion antzemateko, 2 urte betetzen ditugunetik galdu egiten baitugu ahalmena. Tira, galdu ez, baina ez daukagu nahi bezala erabiltzerik. Garunaren heldutasunari zor zaio gaitasuna kamuste hori, baina ez dio maila berean eragiten hizkuntzaren atal guztiei. Hiztegia, esate baterako, noiznahi eta beti ikas dezakegu, baita laurogei urte ditugunean ere. Aldiz, hizkuntzaren funtsa, gramatika, zailago da. Eta hain zuzen, gramatika da gizakiaren hizkuntza gainerako izaki guztien komunikazio sistematik bereizten duen elementua.

Mundura datorren orduko ikasten du haurrak hizkuntza. Berez, aurretik.

Aurretik?

Bai. Baditugu grabazio intrauterino zenbait. Tartean horma bat dagoen-

Alemania eleaniztuna

“Alemanek pentsatzen zuten herrialde elebakarra zirela. 1958tik hona, immigrazio oldea hasi zenean, alemanek apopilotzat zituen kanpotik etorritakok, hau da, uste zuten beraien herrialdera itzuliko zirela. Urte asko igaro ziren alemanak konturatu arte immigrante haiek ez zirela apopilotari, bertan geratzeko asmoa zutela baizik. Gaur egun, alemanak dira, alemana ez beste hizkuntza bat hitz egiten dutenak. Alemaniak arazo hori du, ez baita jabetzen herrialde eleaniztuna dela”.

nean bezala entzuten da. Astebete-ko haurra gai da gurasoen hizkuntza bereizteko, eta elebidunak direnean biak bereizteko gai da. Jakina, ez du hizkuntzarik ezagutzen, baina bereizten ditu, umetokiaren barruan dagoenetik entzun dituela-

“Gramatikaren zatirik handiena, lehenengo urtetik 3-4 urte bitartean ikasten dugu”

ko. Garapena, beraz, mundura etorri baino lehen hasten da. Hizkuntz gaitasuna aldatu egiten da jaiotzen garenetik 15en bat urte betetzen ditugun arte. Hala ere, lehenengo bostak dira inportanteenak: “aukeren leihoa” irekitzen hasten da. Hasieran, haurrak ez du esaldi osorik egiten, leihoa ez dago guztiz zabalik. Chomskyk dio ez dugula hizkuntzarik ikasten, “gertatu egiten zaigula” baino. Ezin dugu galarrazi.

Hizkuntzen ikas-irakaskuntza, bate-tik, eta hizkuntz jabekuntza, berriz, bestetik.

Polemiko xamarra da, baina hor dago. Tira, neure ikerketara itzuliz, agerikoa zen helduek alemanez ikasten zutela, nola edo hala, eta hurrengo galdera haurrei begira sortu zitzaigun. Izan ere, immigrante haien haurrek akatsik gabe ikasten zuten alemanez. Eta gure galdera, garai hartan: “Nola liteke haurrek bi hizkuntzak ikastea eta biak ere ondo ikastea?”. Jakina, gaur egun galderak ez du horrelako muntarik, baina ni galdera horiek erantzun nahirik hau eta hura irakurtzen hasi nintzenean –1980an, gutxi gorabehera–, konturatu nintzen inork ez zekiela gauza askorik. Ikerketak bakan ziren, oso. Hanburgon hasi ginen lanean, haur elebidunak aztergai harturik. Lehenik, frantsesa eta alemana hitz egiten zutenak hartu genituen. Gero, portugesa eta alemana. Hirugarrenik, Gasteizen, euskara eta gaztelania hitz egiten zituzten haurrak. Hamabost urtez egin genuen ikerketa, eta ondorioak ez zuen zirrikiturik: haurrek ez dute hizkuntzarik nahasten, oso txikitatik bereizten dituzte bi hizkuntzak, biak ere natibo balira bezala garatzen dituzte. Gaur egun ez dago zalantzarik, gizakiaren hizkuntz gaitasunak elebitasuna, eta are eleaniztasuna, laguntzen ditu. Hizkuntza bakarra ikasten dugun kasuetan –nire moduan, txikitik alemana besterik ez bainuen ikasi–, aukera galdua da, genetikoki, biologikoki, hizkuntza bat baino gehiago ikaste-ko eginak gaude.

Haurretan egiten ez duguna, heldutan egin behar.

Bai, beti dugu hizkuntzak ikasteko aukera. 80 urte arte ere bai. Baina ez dugu arrakasta bera izango, ez perfektzio-maila berean. Horixe du haurrak abantaila: haur guztiek ezin hobeto ikasten dituzte hizkuntzak,

Babeslea: EMUN





HIZKUNTZA
ZERBITZUAK



KULTURA
ZERBITZUAK



ANIZTASUN ETA IMMIGRAZIO
ZERBITZUAK



PORTE HARTZE
ZERBITZUAK

ARRASATE | ANDOAIN | BERRIOZAR | DERIO

www.emun.com

EUSKARA ETA BERRIKUNTZA SOZIALA

Derrigorrezko eskola, sei urtetik gora

“Haur garaia da bigarren hizkuntza ikasteko sasoirik egokiena. Alemanian, ordea, 6 urte arte ez da derrigorrezko eskola garaia hasten. Gobernuari zuzendu gatzazkio, baina ez du gai hauek eztabaidatzeko gogo handirik. Jakina, gero eta haur-eskola gehiago dago, baina han ez da hizkuntzarik ikasten. 10 urte dituztela, derrigorrezko hezkuntzan ondo barneratuta, hasten dira ingelesa irakasten. Ingelesaren irakaskuntza goiztiarra bultzatzen ari zarete hemen, eta Alemanian ere hobe genuke”.



“Txikitan hizkuntza bakarra ikastea, aukera galtzea da”.

izan bat, izan bi. Helduek, gorabehera gehiago eta zailtasun handiagoak dituzte. Hizkuntzen ikaskuntzaz ari garenean, 10 urtetik gorakoa da heldua, teknikoki. Suedian egin duten ikerketa baten arabera, helduen %3k kasik natiboek bezala ikasten dute bigarren hizkuntza; hizketan ari direla, nekez bereizten dira benetako natibo direnetatik. Alabaina, hizkuntz testak egin haiei, eta %3 hori ere ez dela natibo ageriko da. Helduen %3 horren barruan ez daudenek, zailtasun handiagoa dute bigarren hizkuntza ondo-ondo ikasteko.

Pertsonaren gorabeheran dagoela esan nahi duzu?

Helduen kasuan, bai. Haurretan, besterik da: haur guztiek dituzte bigarren hizkuntza ikasteko aukera eta gaitasun berak. Haurra jaiotzen denetik 8-10 urte betetzen dituen arte, gaitasun bertsua dute haur guztiek. Denek dute hizkuntzaren dohain edo gaitasun hori. 8-10 urtetik gora, pertsona batzuk trebeago dira, beste batzuk baino.

Zergatik?

Ona galdera! Bada, ez dakigu. Espezialistok ez dakigu zergatik. Ikerketak, testak, azterketak... badira, eta esan ere esaten dute: “Halakok hizkuntzak ikasteko erraztasuna du.

Halakok, ez”. Test onak dira, baliagarriak, baina hala ere, ez dakigu zergatik duen pertsona batek hizkuntza ikasteko erraztasuna eta beste batek aldiz ez. Bada zer edo zer garunean, zer den ez badakigu ere. Jakina, bazter uzten ari naiz faktore psiko-sozialak: batek ikasi nahi ez badu, nekez ikasiko du.

Nahi ez baldin badu...

80ko hamarkada hartan bertan, zenbait ikerketa egin genituen, eta etsigarria izan zen, emaitza oso izan zelako jakinekoa. Egoera bigarren hizkuntzaren kontrakoa baldin bada, hau da, immigrante espainol hark alemanez ikasi nahi ez bazuen, beti espainolekin baldin bazebilen, alemanekin batere ibiltzen ez baldin bazen, Espainiako egunkariak besterik irakurtzen ez baldin bazuen eta abar, ezinezkoa zuen alemanez ikastea. Aldiz, aldeko egoera baldin bazen, langile hura beste langile batzuekin, alemanekin erlazionatzen baldin bazen, alemanezko telebista ikusten baldin bazuen... bada, batzuek ikasten zuten, eta beste batzuek ez.

Horixe korapiloa: egoera kontrakoa bada, ez du ikasiko. Egoera aldekoa bada, batzuetan bai, besteetan ez.

Batzuek ikasten dute, beste batzuek ez. Ez dago bermerik. Oraintxe,

Alemanian, haurrek bigarren hizkuntza garaiz ikas dezaten ari naiz buru-belarri lanean. Egin dugu txosten bat, eman diogu gobernua-ri—ez dakit irakurriko duen, baina—, eta horixe esaten dugu: “Ahal den goizen ikasi behar da bigarren hizkuntza”. Jakina, Alemaniako egoera ez da Euskal Herrikoa. Gaur egun, han ditugun immigrante gehienak turkiar jatorrikoak dira. Asko dira, hiru milioi inguru, eta hainbeste izateak horixe dakar, Turkian baleude bezala bizi daitezke kasik, alemanik batere hitz egin gabe. Haur asko daude, milaka eta milaka, turkiarrak asko, baina baita espainiar jatorrikoak ere, eta Alemanian jaioak izanagatik ere, eskolara hasi arte turkieraz edo espainolez besterik hitz egiten ez dutenak. Eta Alemanian derrigorrezko eskola ez da sei urte baino lehen hasten. Beranduegi da. Eta orain dakigunez, jaiotzen garenetik bi urte bitarte gauza asko mugitzen eta gertatzen dira gure garunean. Hizkuntzari dagokionez, berriz, gramatikaren zatirik handiena, lehenengo urtetik 3-4 urte bitartean ikasten dugu. Oker jarduteko beldurrik gabe, esan dezakegu 3 urte bete baino lehen hizkuntza baten gramatikaren zatirik handiena ikasten dugula. ■



Lurreratze pista kapitalismoarentzat

BANCO SANTANDERREKO Emilio Botín gisako bankariek, enpresari handiek, Espainiako Gobernu-ko bozeramaileek, baita Gasteiz eta Iruñekoek ere, nolabaiteko bozkarioa erakutsi dute Espainiako Estatuaren egoera ekonomikoa dela-eta. Diotenez, ekonomia berreskuratzen ari da, “tunelaren beste aldeko argia” ikus omen liteke. “Espainian dirua alde guztietatik sartzen ari da” eta Espainiak “etxeko lanak egin ditu”. Espainiak “erakargarritasuna du”.

Azken esaldia FCCko kontseilari delegatuak esan du, Bill Gates-ek akzioak erosi dituela baieztatutakoan. Microsoft-eko fundatzailea FCCren bigarren akziodun handiena da, eraikuntzan aritzen den multinazional madrildarreko kapitalaren %6 alegia. Gatesen erosketa-maukak baieztatzen du Botínek New Yorken esana: “Atzerriko diru asko ari da sartzen Espainian”.

Zergatik ari da sartzen hainbeste diru? Zergatik du Espainiako burtsak halako arrakasta? Euren bozgorailuek garbi diote: “Espainiak etxeko lanak egin dituelako”. Bai, Espainiako Estatu lurreratze pista paregabea bilakatu da kapitalismoarentzat, Espainiako Gobernuak eta bere gobernu sukurtsalek “etxeko lanak” egin dituztelako: elkar-teen gaineko zerga gehiago murriztu; ingeniaria fiskalaren bidez iruzurra erraztu; soldaten kostua gutxitu; kaleratzeak merkatu; laguntza sozialei eta osasungintzari guraizeak sartu; erretiro adina atzeratu... Ez da harritzekoa, beraz, lekuotatik kapitalismoa berriz ere lasai asko ibiltzea. Lurreratze pista prest du negozioa egiten segitzeko. Espekulatzen segitzeko. Ezer gutxi inporta die ia sei milioi langabetu egoteak!

Juan Mari
Arregi



| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

‘Aiurri’ hedabideak hilabeteko etenaldian

URRIAREN 21EAN HASI eta azaroaren 20ra bitartean geldirik egongo dira *Aiurri* astekaria, hamabostekaria eta webgunea. Aiurri webgunean adierazi duenez, estuasun ekonomikoa larriak eraginda hartu dute erabakia. Gipuzkoako Aduna, Andoain, Asteasu, Larraul, Urnieta, Villabona eta Zizurkil herrietan banatzen dira astekaria eta hamabostekaria. Hedabideak kudeatzen dituen Manuel Larramendi Kultur Bazkunak adierazi duenez, aurreko urteetako joera negatiboa izan da eta 2013. urtea galerarik gabe amaitu ahal izateko beste irtenbiderik ez dute aurkitu: hiru hedabideen ekoizpenean hilabeteko etena egitea, eta langile batzuei lana etetea eta beste batzuei Enplegu Erregulazio Espedientea ezartzea.

Jon Unanue
Manuel Larramendi



di Kultur Bazkunako lehendakariak egoera horretara iristeko arrazoiak azaldu ditu webgunean: “Arrazoi nagusia zein den asmatzen ez da zaila: modu batera edo bestera bizitzten ari garen krisialdi ekonomikoa gaizto honek min ikaragarria egin digu azken urteetan eta, oso bereziki, aurtun, 2013an. Batetik, eskualdeko udal batzuen diru-laguntza jaisten ikusi dugu, nabarmen Amasa-Villabonako Udalarena, eta horren atzean ez dago hutsik krisialdi ekonomikoa, baita Tolosaldean komunikabideen artean azken urteetan bizi dugun lehia gaiztoa: Aiztondoko

udalek Aiurri diruz laguntzeaz gain euskarazko beste hedabide batzuk ere diruz lagundu dituzte, paperean, esate baterako, *Tolosaldeko Hitz* delakoa ere, eta Aiztondon ez dago lekuri bi argitalpeni eusteko”.

Bahea

Ipar Euskal Herriko Hitzak Kanaldudeko Ahoan Bilorik Gabe saiotik jasotako Amets Arzallusen hitzak:

“Erraten zuen [Patrick Dallennes Baionako suprefetak] euskara osasun onean zela edo ez zela kezkatzerik; mezu baikor bat bazuen. Noski, erraz da baikor izatea bere barnean zarelarik eta hizkuntza ezagutu ez. Nik ere gainbehera hori ikusten dut grafikoetan eta eguneroko errealitatean. Badira gorantz joaten diren adierazle batzuk, baina badira behera joaten direnak, ezin zaienak begirik itxi. Irakurketa positiboa egitea erraz da, ez duzunean hizkuntzaren mina barnean bizi. Uste dut ez dela beharko genukeen jarrera eta beste zerbait eskatu behar dugula hizkuntza politikak aplikatzen dituztenekiko, kontzientzia har dezatela errealitatearekiko, ikus dezatela zein sufrimendutan den hizkuntzaren

gainbeheraren egoera, eta arabera neurriak galdegin”.



Tolosako Babarruna



Hoberenak soilik aukeratzen ditugu

☎ 943 650 253
www.tolosakobabarruna.com

Kubatarrak maisu behar gorriaren teknologietan

Kuban izan diren guztiek kontatu dituzte han herritarrek egunero behar dituzten tresnak sortu, konpondu eta bizirik atxikitzeo daukaten modu guretat bitxia. Espiritu karibetarra dela, beharrak kitzikatzen duen irudimena, blokeo ekonomikoari aurre egin nahia... Ernesto Orozak esplikatu du Kubaren 50 urteotako historiaren baitan.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

‘DO IT YOURSELF’ (DIY) EUSKARAZ “Zerorrek Egizu” baino hobeto esango genuke “Bakarrik Molda Zaitetz”. Formulak ondo defini dezake Kubako herritarrek azken mende erdian biziraun nahian gartu duen soluzio parafernalia guztia, azkenean azpikultura bat osatzeraino iritsi dena.

Ernesto Oroza artista kubatar gazteak, uhartean adina Miamin bizi denak, azaldu du *Motherboard* kanalean “*Cuba's DIY Inventions from 30 Years of Isolation*” bideoan. “Hona topatu berri dudana trastetxo hau”, dio hasieran. “Argindarrari lotuz gero, ordulariaren bateria ezin kargatuzkoa biziarazi dezake berriro. Sorrek usatzen dute, entzuteko tresnaren pila eten gabe kargatu beharra daukatelako”. Irudietan nabari da ez dela produktu komertziala, eskuz *brikolatuta* dagoela.

Honelako objektuek eragin diote Orozari asmatzea *desobediencia tecnológica* kontzeptua. “Teknologiararen interpretatze berri bat dakarte, jendeak hainbeste daki teknologiaz eta ingeniariartzaz ezen manipulazioan gero eta urrunago baitoa, beti gauza berriak asmatuz”. Teknologiarekiko intsumisioak bere baitan dauzka trasteen asmatzea, berrasmatzea, berrerrabiltzea, konpontzea...

Kubara azken urteotan joan denak pentsa lezake Sobiet Batasun-

na desagertu ondoren uharteak bizi izan zuen aro latzaren ondorio dela dena, baina Orozak erakutsi du lehendik zetorrela. Leitu behar zaio “*Desobediencia Tecnológica. De la revolución al revolico*” artikulua.

Fidel Castro agintera eraman zuen iraultzak Kuban yankiek zeuzkaten konpainiak nazionalizatu zituenean, korporazioek erretiran berekin eraman zituzten ingeniari kubatar gehienak. 1961ean Industriako ministro izendaturik, Ernesto Che Guevarak sustatu zuen ekonomia biziberritzeko kontsigna: “*Trabajador, ya has demostrado tu capacidad construyendo piezas de repuesto. Ahora, construye tu propia maquinaria*”. Urte bete lehenagotik tekniko iraultzaileek *Comités de Piezas de Repuesto* antolatua zuten. 1963an sortu zuten *Asociación Nacional de Innovadores y Racionalizadores*. [Irakurleak barakatuko al digu izen eta formula polit horiek jatorrizko gatzelarian uztea].

Ez zegoen lan gutxi. “Hautsitako makinek ziruditen garai hartan aberriaren etsaierik beldurgarrienak”, idatzi du Orozak. “Makinen pieza hondatuek sortutako hutsuneek paralizatzen zuten iraultzaren engranajea. Obreroek ekin zioten hutsuneok betetzeari eta hainbeste aldi zehar hainbeste urtetan egitearen poderioz makina haietako askok

Lezumbalaberenjena erabiltzaileak *Flickren* laga duen 2012ko argazki honetan, Kubako Santa Clarako senar-emazteak etxe aurrean daukaten *rikimbili*arekin. *Rikimbili* edo *riquimbili* deitzen zaio beste makina eta ibilgailuen atalez *brikolatutako* motoari. Argazkikoa osatuta dago txirringari erantsiz motor bitxiren bat —zein tresnari kendua?—, eserlekua besterena da... merezi luke gertuagotik ikustea, gasolinaren ontzia adibidez. www.revolico.com salerosketa gune kubatarrean eskaintzen diren autoen azalpenak harrigarriak dira: jatorrizko txasisari marka ezberdinetako motor, ispilu, pneumatiko, galga eta denetakoak itsatsi zaizkio. Edozein markatako edozein atal da ona edozein tresnarentzako, kontua da *resolver*. Irudi txikian, Che Guevarak ministro zenean zabaldutako afixa. Sistema sozialistak sustatu zuena, azkenean herritarrek erabili du sistemaren ezintasunen gainetik bizirauteko.

gaur jatorrizko pieza baino gehiago dauzkate obreroek beraiek sortuak”. Makinok sortu zituzten ingeniari yankiak Kubara joan balira ezagutu ere ez zituzten egingo, baina aitortu beharko zuten atal traketak eta zaratsatuagoz lehen bezain emankorrak zirela.

Zaharra ez bota inoiz

1960tik aurrera atelierreko lanabesak bizirik atxikitzen ahalegintzen zen teknikaria etxeko beharrak ere izpiritu berarekin asetzen hasi zen, oso baliabide gutxiarekin. AEBen enbargoari gehitu zitzaion, dio Orozak eta berretsiko lukete beste askok, sozialismo berriak eraiki burokraziaren efikaziarik eza.

1970ean Kuba krisian hondoratu zenean, hainbeste saiaturako obreroak ohartu ziren ez zutela lortu beren familien eguneroko bizimodua konpontzea. Orduantxe sortzen da, Orozaren aburuz, Kuban hain topikoa den pilaketa: “*la acumulación*”. Etxeko zoko guztietan klase guztietako traste eta gaiak metatzen dira, prozesu industrialek bizimodua konpontzen ez dutenez, eskulanaren bidez moldatu ahal izateko

“*Hay que resolver, compañero*”. Haizagailua izorratu bada, hura konpontzeko balio lezake xuxen jasotako beste mila tramankuluetakoren baten piezak. Kontserba potoa ez da



diren trasteen atalekin. “Kubanoa ez dute beldurtzen Sony, Swatch edo NASA berak daukaten autoritateak”.

Hainbeste desegin eta berregitearen poderioz, Kubako herritarrak ez omen du ikusten objektu bat bere osotasun eta irudian, baizik eta edozein larrialditan erabili ditza-keen osagaien batuketatzat. Haizegailuaren oinarria hautsi bazaizu, gogoratuko duzu Alemania komun-istatik aspaldi ekarritako telefono hark forma bera zuela, eta halako zokotan daukazula gordea.

Krisia zenbat eta larriago, orduan eta sendoagoa izan da herritarren irudimena. Denetarako aurkitu dituzte ordezekoak, garraiotarako, jostailutarako, jakietan, janzkietan... Armadak berak lagundu zien herri- tarrei ahalegin horretan, *El libro de la familia* plazaratu zuen bertan bil- duz aurretik zeuden liburuak bezala jendeek Armadari ezagutarazitako teknikak.

Raul Castrok ekonomia ireki- tzeari ekin eta atzerritik, batik bat Txinatik, produktu asko sartzen hasitakoen ere, kubatarrek atxiki dute beren DIY izpiritua. Aginta- riak batzuetan ahalegindu dira herritarrek modu ez estandarretan sortutako produktuak oztopatzen, ibilgailuak esate baterako. Baina legedia goxatu behar izan dute. Esate baterako, auto batek lege- zirkulatzeko aski du bere osagaien %60 izatea berezkoak: kaleak *cuarenta por ciento*z beteta daude. XXI. mendeak ekarri digun krisi sistemikoan, berriro biziraunpenerako ere- duak daude Kuban. ■



jaurti behar, agian egun batean beharko da bilobari jostailua egiteko.

1980ko hamarkadan, Sobiet Batasunaren inguruan antolatutako merkatuari esker, Europatik era- mandako tresneria ezagutu dute kubatarrek, denak berdinak: hoz- kailua Minsk markakoa, telebistak edo Caribe edo Krim, haizagailua Orbita, garbigailua Aurika... Indus- tria komunistak arrazionalitate hori sustatzen zuen, monotonía ere dei dakioke. Horregatik Kubako etxe gehienetan oso antzeko produktuak eta atalak gorde dira. Horrek esplika- tuk du beranduago telebista ikusteko beharrezko antenak falta- ko direnean, sasi-antenatzat hain- beste lekutan ikustea aluminiozko erretiluak, beti berdinak...

Acumulación egitea bera ez obedi- tze seinalea zen, sistemarekiko mes- fidantzarena. 1990ean *campo socialista* delakoa hondoratzean, kubatarrek berriro frogatuko zuten zein garran- tzizkoa zen etxean hainbeste traste zahar edukitzea, “bada ezpada ere”. Agintariak ebatzi zuten “bake garai- ko Aldi Berezia” izango zela aurre- rantzean eta 1993an legediaren barruko lehen zirritua zabaldu zieten beren kontura lan egin nahi zuten herritarrei.

Período Especial delakoan eman du jauzi handia kubatarren irudime- nak. Lehen momentuko helburua izan bazen hondatutakoak konpon- tzea, gero eta gehiago produktu eta zerbitzu berriak osatuko dituzte horretarako diseinatuak izan ez



ZINKUNEGI
OPTIKA

Garantia.

Egunez egun zure konfiantza geureganatzen dugu,
produktu berriak eta zerbitzu berriak etengabe bilatuz.

Hernani, 23 · 20004 Donostia · T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com · www.zinkunegioptika.com



Xabier Letona



DANI BLANCO

Bi urtetan 500 preso kalera

ESTORMONTEKO AKORDIOAK

—edo Ostiral Santukoak— garrantzi handia eman zion presoen gaiari Ipar Irlandako bake prozesuan. Akordioa 1998ko apirilean sinatu zen eta 2001eko uztaileko 500 presok kalean egon behar zuela zehazten zuen. Ez zen amnistiarik izan, alabaina, eta presoek egoera banan-banan aztertuko zuen Batzorde Independente bat sortu zen prozesu hau gidatzeko. Brian Currin izeneko hegoafrikar abokatu bat izendatu zuten batzorde horretako buru. 1999ko urtarrilerako 250 preso kalean ziren baldintzapeko askatasunean. 1998 eta 2000 artean 433 preso kalean ziren, horietatik 229 IRAkoak.

Presoen askatzea eta biktimen gaia biziki sentibera izan zen Irlandan ere, baina alde guztiek ulertu zuten kosta ahala kosta egin beharreko ibilbidea zela. Oro har, baldintza batzuk zituzten presoek, baina garrantzitsuena zera zen, haien erakunde armatuak jarduera armatura itzultzen baziren, kartzelara itzuliko zirela. 2012an *Gara*-ri eskainitako elkarrizketan, Pat Sheelan IRAko preso ohiak —gaur egun Sinn Féin-eko parlamentaria— garrantzi berezia duten bi puntu azpimarratu zituen. Lehena oso ezaguna da edozein bake prozesutan, baina giltzarri eta, zailtasunak zailtasun, inoiz ahaztea komeni ez dena: “Presoen irteera ezinbestekoa da prozesua egonkortzeko”. Bigarrenak, aldiz, presoek eman beharreko mugimenduei egiten die erreferentzia, presoak eta haien erakunde armatu edo mugimendu politikoarekiko harremanei, eta horri buruz gutxiago hitz egiten da hemen, behintzat publikoki: “Esparru honi buruzko erabakia

mugimendu politikoak hartu behar du, eta ez presoek”, zioen Sheelanek elkarrizketan.

2003ko otsailean bukatutzat eman zen bake prozesuan presoek askatasunari lotutako atala. 2005era arte IRAk ez zuen eman bere jarduera armatuaren bukaeraren berri. 2005ean, halaber, Harold Good eta Alec Reid, apaiz protestante eta katolikoak IRA desmobilizatua zegoela baieztatu zuten.

LEKUTAN da Euskal Herriko bake prozesua, baina lehenago edo geroago antzeko neurriak eman beharko dira. Akordiotik hamabost urtera, bizikidetzat prozesu bat gauzatzen ari da Ipar Irlandan.

PP ezik, euskal gizarteko gainerako aktore guztiak zentzuzko jarrerak erakusten ari dira Estrasburgoko ebazpenaren ondoren

Ez da zalantzarik leku bakoitzak bere ezaugarriak dituela bakea eta elkarbizitza negoziatzeko, baina denetan dira oinarritzko amankomuneko puntu batzuk: funtsean bakea gauatzeko borondatea eta elkarbizitza berrirako akordio batzuk. Madrileko larunbateko biktimen manifestazioak aldarrikatu zuenaren guztiz aurkakoa: irabazle eta galtzaileen elkarbizitzak nekez du etorkizunik, are gutxiago mendekuan oinarritzen bada.

Eta batek ez daki noiz ekingo dion Madrilgo gobernuak biktimen ziabogari eta pentsatu nahi dut *Parot doktrinak* ematen duela horretarako aukerarik. Baina biktimen erakundeek duten indarra eta

bazka nola ematen zaien ikusita, agian logikoena da pentsatzea PPren gobernuarekin jai dagoela eta akaso PSOEren bati itxaron beharko zaiola euskal auziari irtenbideren bat emateko.


Beti daude unean uneko egoe-raren hainbat neurgailu eta orain-go egokiena *Parot doktrinaren* biharamunekoa da; funtsean, doktrinak eragindako presoak noiz eta nola kaleratuko dituzten. Ez du zentzurik pentsatzea Espainiako Auzitegi Nazionalak ostiraleko doktrinaren eraginpean dagoen preso baten egoera aztertu eta askatuko duela. Ez luke zentzurik, ez pragmatismoaren ikuspegitik ezta juridikotik ere, horregatik pentsatzekoa da lehen zirimola honen ondoren, doktrinak eragindako presoek askatzea zentzuzko denbora batean egingo dela. Baina, bestetik, PPren jarrera orain arte ez da zentzuzkoa izan elkarbizitza eta akordioarekiko, eta horrek ezkortasuna ematen dio ikuspegi baikorrenari ere. Askotan bada pentsatzerik PP, egiazki, ETaren itzulera ari dela probokatzen eta hori ezinezkoa denez, erakunde armatuan edo ezker abertzalean zatiketa motaren bat amesten duela.

PP ezik, euskal gizarteko gainerako aktore guztiak zentzuzko jarrerak erakusten ari dira Estrasburgoko ebazpenaren ondoren, eta bereziki ezker abertzalea: epaia ospatzeko mila arrazoi eta behar izan arren, ospakizun publikoei begira zentzuz eta arduraz jokatzeko gai dela erakusten ari da. Hobe guztia ezkutuko gidoi batekiko jarrera arduratsua balitz, ezta? ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Bertsolari Txapelketa Nagusia



2 harpidunentzat
bina sarrera

Azaroak 9, larunbata 17:30ean
Jai-Alai pilotalekua
Gernika-Lumo (BIZKAIA)

www.bertsozale.com

1

Bertsolari Txapelketa Nagusia




2 harpidunentzat
bina sarrera

Azaroak 10, igandea 17:30ean
Usabal kiroldegia
Tolosa (GIPUZKOA)

www.bertsozale.com

2

Iruñeko Planetarioa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3

EUREKA! zientzia museoa



3 harpidunentzat
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

4

Argia kamiseta



2 kamiseta

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2387. Argia)

BETSOLARI TXAPELKETA NAGUSIA Oion

- Jabier Alzorritz Lardies (Bilbo)
- Jose Mari Etxezarreta Zelarain (Donostia)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Xalbador Makazaga Sagarazu (Lezo)
- Josu Mendicute Rodriguez (Eibar)
- Joseba Landaluze Moraza (Gasteiz)

ILLIMANI

- Imanol Irigoien Aranberri (Oizartun)
- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)

BILBOKO EUSKAL MUSEOA

- Galdakaoko aek Euskaltegia (Galdakao)
- Xabin Mujika Tolaretxipi (Azpeitia)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Aitor Sangroniz Akarregi (Santurtzi)
- Andoaingo Udala Euskara Zerbitzua (Andoain)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • gunea@argia.com

www.argia.com/gunea

gunea

argia



HEDABIDE HAU POSIBLE EGITEN DUZUENOI ESKER...

egia kontatu dugu Cabacas auziaren inguruan



- Bertsio ofizialak zalantzan jartzen dituen herria gara,
 - iluntasunaren gainetik argitasuna eskatzen duena.
- Inork ez du gure ordeaz egingo.

Hori lortzeko baliabideak behar ditugu.

helburuak lortzeko
GURE BALIABIDEAK

Iker Bizkarguenaga
IRITZIA SAILEKO BURUA

GARA